

Aurkezpena



Material hau egitea ezinezkoa izango litzateke **Alboan** fundazioko prestakuntza arloko pertsona boluntario, laguntzaile eta langileen laguntzarik gabe.



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

1. Lehen Hezkuntzan proposaturiko hezkuntza materiala

Material honek Lehen Hezkuntzako ikasleekin eskubide eta betebeharren gaia lantzeko proposamen didaktiko batzuk ditu. Proposamen hau hiritartasun kontzeptua landu nahi den prozesu zabalago baten barruan kokatuta dago. Lehendabiziko urte honetan eskubide eta betebeharren gaia landuko da funtsezko lau ideia jorratzen saiatuz.

- Pertsona guztiok eskubideak ditugu.
- Guztienak ez diren eskubideak gutxi batzuen pribilegioak dira.
- Eskubideek betebeharrak dakartzate eurekin..
- Eskubideak zein betebeharrak familian, ikasgelan, auzoan, hirian daude.

Hezkuntza etapa honi dagozkion diziplina kurrikular bakoitzetik eskubide eta betebeharren oreka lantzeko aukera ematen duten jarduera ezberdinak proposatzen dira. Horrela, **ingurumena ezagutzeko arloan** ingurumen osasuntsu bat izateko eskubidea eta errespetatzeko betebeharra lantzen dira; **matematiketan**, kontsumitzeko eskubidea eta era arduratsu batean egiteko betebeharra; **artearen hezkuntza**, errekursoetarako eskubidea eta banaketa egokia egiteko betebeharra; **ingelesean**, elkarbizitzarako arauak errespetatzearen garrantzia eta beharra; **gazteleran**, lanerako eskubidea eta ezagutzeko betebeharra; **gorputz heziketan**, eskubideak bermatzeko oreka gordetzearen beharra, eta guztietan, ezberdina izateko eskubidea eta aniztasuna errespetatu eta baloratzeke betebeharra. Horretaz gain, **tutoretza eta erlijio arloan**, ikastetxea girotzen duten posterren gaineko lana proposatzen da, bai eta gure harremana ikasgelan arautu dezaketen eskubide eta betebeharrak batzuen definizioa ere.

Azken finean, irakasleentzako erabilera errazeko tresna didaktikoa da, izan ere, hiritarren gaia ikasgelan ez ezik, familian, auzoan eta munduan ere lantzeko aukera ematen du eta. Betiere, etapa honetako kurrikuluak arlo eta hezkuntza-ziklo bakoitzerako markatzen dituen irizpideei jarraiki, prozedura berritzaileen aldeko apustua egin eta jokaera solidarioen gainean lan eginez.

Material hau aplikatzean lortu nahi diren **helburu orokorrak** honakoak dira:

- Ikasketa esanguratsu bati laguntzea irakaskuntza-ikaskuntza jardueren bitartez, ikasleei ezaguera eta aurretiazko esperientziak eta ikasketa berriak erlazionatzeko aukera ematen dutenak.
- Autonomia eta arduraz jokatzeko ohiko jardueretan eta talde harremanetan.
- Taldeka egin beharreko jardueren planifikazio eta gauzatzean laguntzea, normak eta arauak onartzea, norbere helburuak taldeko beste kideen helburuekin artikulatzea ikuspuntu ezberdinak errespetatuz, eta



egokitutako ardurak nork bere gain hartzea.

- Bizitza eta giza elkarbizitza gidatzen duten oinarritzko baloreak ulertzea eta horien arabera jokatzeko.
- Diskriminazio egoerak antzeman eta errefusatzeko, honako arrazoi ezberdin hauek direla kausa sortutakoak: giza jatorria, hizkuntza, kultura, sexua, arraza, sinismenak, eta abar, aniztasuna pertsona eta herrien aberastasun legez baloratu eta diskriminazio oro desagertu dadin arituz.
- Jokaera kontzientea, kritikoa eta arduratsua hartzea nork bere ekintzen aurrean bere eskubide eta betebeharrak ezagutu eta betetzeaz arduratuz.
- Gizartean pertsona guztientzako bermaturik egongo diren eskubide batzuk egotearen garrantzia onartzea.

2. Zikloko irakasle eta gurasoentzako proposamena

Zikloan gai hori lantzeko, interesgarri deritzogu irakasleek beraiek zein gurasoek gaiari buruz hausnartzeko eta oinarritzko helburuak zehaztu eta ikastetxeko errealitatera egokitzeko materiala eta denbora izateari.

Horretarako, orientabide izan daitezkeen agiri bi aurkezten dira: Lehendabizikoan, “*Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara*” izenburuduna, hiru urteko iraupena izango duen proiektuaren filosofia azaltzen da. Lortzeko apustua egiten dugun hiritartasun kontzeptua definitu egiten da eta zenbait hezkuntza estrategia zehazten dira.

Bigarrenean, “*Eskubide eta betebeharrak, eskubide eta erantzukizunak*”, hezkuntza materialen proposamenaren oinarrian dagoen filosofia aurkezten da, karpeta honetan diren materialak eta poster, bideo, lehiaketak, mahai-jokoekin osatuta hain zuzen, bai eta Alboan-en aholkularitza eta prestakuntza ere.

Agiri hauek prestakuntza saioetan oinarri izan dakizkieke irakasle zein gurasoei ikuspuntuak trukatzeko, tes-tuinguru zehatzaren inguruko lehentasunak ezartzeko eta proposamenak osatzeko.

Ondoren, prestakuntzarako hiru saiotarako proposamena dugu gaia klaustroan, taldean edo gurasoekin



1. Saioa:

Aldez aurretik *“Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara”* agiria banatu da.

1. Talde dinamika: scrabble hiritartasun hitzari buruz.

- a. Irteten diren hitzak komunean jarri.
- b. Hitzoi lehentasuna eman.

2. Hiritartasuna agiriaren gaineko honako galdera hauek planteatzea.

- Agiriaren inguruko argitasunak edo komentarioak.
- Zer dakarkizu burura hiritartasunaren gaiak?
- Gaiaren diagnostikoa:
 - Ikasgela, ikastetxea, irakasleak, gizartea.
- Zein zerikusi du zure hezkuntza zereginarekin?
- Ezagutzen dituzun gaia lantzen duten proposamen eta ekimenak.
- Bururatzen zaizkizun zure hezkuntza praktikan beharrezko edo iradokitzaile izan daitezkeen proposamen zehatzak honako honi buruz:
 - Gaiak
 - Metodologia

3. Talde-lana eta komunean jartzea.

2. Saioa:

1. Taldeka, eta aurretik azaldutakoa kontuan izanik, hiritartasuna ikastetxean zein ikasgelan gaiari buruzko diagnostikoa egin.
2. Guztion arteko gaiari buruzko gainerako elkarrizketa.
3. Ikasturtea honetako gaiaren aurkezpena: eskubideak eta betebeharrak.

Agiriaren banaketa: "Eskubide eta betebeharrak, eskubide eta erantzukizunak" eta galdera eta iradokizunak.

Agiria lantzeko kontuak

Gure ikasgeletara so eginez...

- Zein beste elementu sartuko zenuke egoeraren diagnostikoan? Zein beste ezaugarri ikusten duzu zure inguruan? Zein alderdi positibo ikusten duzu gure munduan? Zein puntutaraino uste duzu baliagarri zaiela diagnostiko hau zure ikasleei? Uste al duzu betebeharrak eta erantzukizunak baino, eskubideak dituztela sentitzen dutela?
- Noiz igartzen duzu erantzukizunaren areagotzea zure ikasleengan? Zein egoeraren aurrean? Nola uste duzu susper daitezkeela erantzukizunak ikasleen artean?
- Ikasleekin arazoitzen duzunean errespetua, guztien ongia eta elkarri zaintzearekin zerikusia duten kontuekin erantzule izan daitezen, zein argumentu darabilzu? Nola sentitzen zara zu diagnostikoaren aurrean? Funtsean, non kokatzen zara zure familian, ikastetxean, hirian, munduan..., zure eskubideen defentsa egiten edo zure erantzukizunak jokoan jartzen?

Geure buruari so eginez...

- *Neure betebeharrei dagokienez...*

Gu geu gara gure eskubide eta erantzukizunak noraino heltzen diren hobeto dakigunok, sarri askotan kontratuz eskatzen dena baino harago: Zein betebeharrei deritzet funtsezko garatzen dudan nire hezkuntza lanean? Zeintzuk daude nire "lan" betebeharretik haratago?

Eta hezkuntza komunitateko kide legez: Ze betebeharrak uste dut direla bete behar ditugunak? Nori dagozkio?

- *Besteen eskubideei dagokienez...*

"Eskubide" / "betebehar" bikotearen kontzientzia hazten ari da, eta egoera horretan berebiziko garrantzia dute besteen eskubideek (batez ere laguntza gutxien dutenenak). Hezkuntza inguruan ikasleak, gurasoak, irakasle ez diren langileak, langileak, patronala..., horietaz guztietaz arituko ginatke. Zeintzuk dira euren eskubideak? (ohar zaitetz aipatu ditugun talde ezberdinez) Nola defenda ditzaket?

3. Saioa:

1. Taldeka, galderak komentatu eta ikastetxe zein hezkuntza zikloaren diagnostiko bat egin.
2. Guztien arteko elkarrizketa.
3. Funtsezko helburuak erabaki eta erabili beharreko materiala aurkeztu.

3. Informazio gehiago lortzeko

Web orrialdeen zerrenda dugu hau informazio gehiago eskuratu eta eskubide eta betebeharren gaiarekin zerkusia duten beste bitarteko batzuetarako aukera izateko.

Hezkuntza proposamenak dituzten orrialdeak

<http://www.derechos.net/links/esp/edu/> HEZKUNTZARAKO ESKUBIDE BEREZIA HEGOAMERIKATAKO HERRIETAN. LINK-AK IRAKASLE ETA IKASLEENTZAKO TRESNEKIN.

<http://www.derechos.net/edu/> HAURRENTZAKO LINK BEREZIAK.

<http://www.pangea.org/edualter/material/ddhh/sedupaz.htm> JOKO DIDAKTIKOAK DITU.

<http://www.hrea.org/> Ingelesez. HONAKO HAUEI BURUZKO INFORMAZIOA :

<http://www.amnistia.org.py/edu.html> NAZIOARTEKO AMNISTIAREN ORRIALDE HEZGARRIA.

<http://www.serpaj.org.uy/revista.htm> IRAKASLEEI BEGIRA.

<http://www.uca.edu.ni/koinonia/varios/ddhh.htm> GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPENA DU, HERRI BERTSIO BAT, BIBLIAREN AZTERKETA BAT...

<http://www.pangea.org/ai-cat/educadors/4propostes/index-esp.html> GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSAZ KONTZIENTZIA HARTZEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK.

<http://www.pangea.org/ai-cat/educadors/musica/fichas-indice.html> GIZAKION ESKUBIDE ETA LIBERTATEETAN INSPIRATURIKO KANTA SORTA.

Bitarteko interesgarriak dituzten orrialdeak

<http://www.acsur.org/>.

<http://www.derechos.net/esp/>

<http://www.eurosur.org/spa/derechos.htm>



<http://www.fuhem.es/CIP/EDUCA/>
<http://www.derechos.net/links/esp/foro/> EZTABAIDA FOROEKIN LOTURA.
<http://www.derechos.net/links/esp/temas/>
<http://www.derechoshumanos.org/> EZTABAIDA FOROA.

Adierazpenak

<http://www.pnud.org/ve/idh/deberes.asp#01>. NAZIO BATUETAKO PROGRAMA. HEZKUNTZAREN INGURUKOA.
<http://www.derechos.net/doc/dudh/> GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIOA IZAN ZENeko 50. URTEURRENA. AZALTZEKO ETA IKASTEKO.
<http://www.iepala.es/DDHH/> BOTEREAREN TEORIAREN AZALPENA. NAHIKO ZEHATZA.
http://www.unhchr.ch/spanish/html/50th/50kit2_sp.htm EMAKUMEAREN ESKUBIDEAK.
http://www.unhchr.ch/spanish/html/50th/50kit3_sp.htm HAURRAREN ESKUBIDEAK.
http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/74_sp.htm. GARAPENERAKO ESKUBIDEA.

Eskubideak eta betebeharrak eremu ezberdinetan

<http://www.oas.org/SP/PROG/pg19-23.htm>. GIZAKIAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN AMERIKAR DEKLARAZIOA.
http://www.educa.rcanaria.es/usr/iespuertor/derechos_y_deberes_alumnado.htm IKASLEEK IKASTETXE BATEAN DITUZTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN GARAPENA.
<http://averroes.cec.junta-andalucia.es/~29003397/estiloco.htm> IKASTETXE BATEKO IKASLE ZEIN GURASOEK DITUZTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN GARAPENA.
<http://www.internen.es/compositor/or/DCTS/Derechos.htm> IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK ETA IKASTETXE BATEKO ELKARBIZITZARAKO ARAUAK.
<http://www.comadrid.es/inforjoven/cridj/derdebe/derech.htm>. ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.
<http://www.uah.es/organizacion/otros/derechosydeberes.shtm>. ALCALÁ-KO UNIBERTSITATEKO IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.
<http://www.asamblea.gob.ni/constitucion/deberes.htm>. NIKARAGUAR PARLAMENTARIEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.
<http://www.cuzroja.org.ar/volu/debe.htm> ARGENTINAKO GURUTZ GORRIKO BOLUNTARIOEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.



Eskubide eta betebeharrak

Eskubide eta erantzukizunak



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

1. Sarrera

Giza eskubideak, agiri honetan aipatuko ditugun kontraesan eta mugak barne, paradigma etiko orokorra bihurtzen ari dela esan genezake. Garaipen etiko izugarria duen paradigma: giza eskubideek duten garrantziaren kontzientzia progresiboak *giza duintasunaren* esanahia hobeto ulertzen lagundu digu. Gaur egun pertsona eta herri guztiek merezi duten errespetu eta babesaz inoiz baino kontzienteagoak gara. Giza eskubideak, bere testuinguru nagusian, sufritzen duena babesteko jaio ohi dira. Horrela bada, 1948ko Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsala esaterako, II Mundu Gerran izandako milioika pertsonen pairatutako gehiegikerien erantzun eta kexa legez sortu zen. Horrek ezin estimatuzko balioa ematen die.

Haatik, mendebaldeko gure testuinguru kulturalak giza eskubideak edukirik gabeko erretorika hutsa bihur ditzaketen dinamika batzuk agertzen ditu, edo baita solidario ez diren aldarrikapenatarako aitzakia ere. Honako atal honetan, egungo diagnostiko bat dugu, jarduera arriskutsu horietako batzuk azaltzen dituen.

2. Gure garaiko diagnostiko bat

Justizia eta elkartasuna bezalako hitzak gero eta maizago eskatzen diren arren, *indibidualismo* sakon batek zeharkatzen duen gizarte batean bizi gara, besteenganako eta pertsona bakoitzak begiratzen duen horren ganako erantzukizun sentimendua desegin egiten da, lehenengo eta behin, berez.

Hori gure *loturak* ahuldurik suertatu izanarekin lotuta dago, edo lokarriak direnean, “gu” hori “besteak” terminotik errotik aldentzeko joera azaltzen dute. Kasu askotan, lotura horiek baztertzailleak izaten dira, alegia. “Gu” hori ulertzeko era eskusibista hori gure erantzukizunak gure inguru afektibo eta hurbiletik baino harago hozten ditu. Gure elkartasunak “elkartasun itxiak” bilakatzen ditu. Loturaren ahultasun prozesu horrek batetik, eta elkartasun itxiarenak bestetik, *gure eskubideen* defentsa indartzea dakarte “besteengandik babesteko” bai eta haiekin identifikaturik senti ez gaitezen eragiten duten giza instituzioen aurrean gordetzeko ere.

Bestalde, gaur egungo munduko gure gizarteak *gogobetetzearen kulturaren* kokatuta daude. Oro har dugun ongizate egoerak zail egiten digu guk baino gehiago sufritzen dutenen beharrekiko enpatia izatea guk geuk sentitzen ez ditugulako eta gure bizimoduak zalantzetan jartzen dizkigutelako. Munduan diren sufrimendu errealtateetatik, komunikabideetan besterik azaltzen ez diren horietatik aldenduta bizi gara. Besteen sufrimendua ez zaigu heltzen. Hain urrun den sufrimenduak, eskura ez dagoenak, zuzenean konpontzen laguntzerik ez dudu horrek, nazka sortarazi eta erretorika dela ematen du. Ongizate Estatu bera, mendebaldeko gizarteetan birbanaketa eta elkartasunerako ezinbesteko tresna dena, baliteke gure berdinekiko erantzukizun ezari mesede egitea beraiekiko ditugun betebeharrak bakarrik, eta zenbaitean bereziki, Estatuari eta instituzioei egokitzen zaizkielako eta ez guri.

Alderdi horiek, beste batzuen artean, *hazten doan gure eskubide propioen kontzientzia eta erantzukizun zentzu ahul batekin* bizi gaitezen eragin dute.

“Edozelan ere, gaur, batez ere, giza betebeharez mintzatu behar gara, gure munduak ezin baitu funtzionatzen ari den bezala jarraitu.”

JOSTEIN GARDNER,
LA VANGUARDIA, 4-12-98



Joera hori areagotu egin da azken urteotan, eta *belaunaldi gazteenak* –sozializazio prozesu betean daudenak- dira hain zuzen ere, *bereziki jasaten dutena balore horien eragina*.

Diagnostiko hori alde bakarrekoa litzateke (baina,) aurreko errealitatearekin bizi den beste batekin amaituko ez bagenu. Izan ere, badugu beste batzuek pairatzen dituzten bidegabekeriaren aurrean haserretzeko gaitasuna, baita beste baten dohakabetasunaren aurrean mobilizatu eta inplikatzeko ere. Baliteke kultura indibidualista batean murgilduta bizitzeak bidegabekeriaren desinteresaturik sartzeari betebehartzat ez hartzea eragitea, edo batzuetan ondo sentitzeko besterik ez egitea. Baina egiaztatu beharra dugu haserretzeko dugun gaitasun hori eta gure bihotzetan den benetako elkartasun nahia, eta, zalantzarik gabe, gizatiarrago egiten gaituena.

3. Nola heldu gara hona?

Giza eskubideen bilakaera

Giza eskubideak, egun ezagutzen ditugunez, historian zehar eman diren gizarte borroka batzuen emaitza dira. Horien artean azpimarra dezakegu Estatuaren botere absolutu hura norbanakoaren aurrean mugatzeko izan ziren borrokak (zenbait askatasunerako aukera eman zuena, kontzientziarena, erlijioarena, elkarteena, berme prozesal eta penalak, etab.); edo langileen mugimendu hura, lan-eskubidea, segurantza soziala eta beste gizarte zerbitzu batzuk eragin zituen hain zuzen ere.

Frantziako Iraultzan sortu zen leloa, “Askatasuna, Berdintasuna eta Senidetasuna”, giza eskubideen belaunaldi ezberdinetan zabaltzen joan da:

- “Askatasuna” eskubide zibil eta politikoetan zehaztu zen (kontzientzia askatasuna, elkarteena, adierazpenarena, sufragio unibertsalarena...). Funtsean, baina beste gauza batzuen artean, gizabanakoen eremu pribatuan ez sartzera behartzen duten “eskubide negatiboak”.
- “Berdintasuna” honako eskubideetan zehaztu zen, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak (lanerako eskubidea, hezkuntzarako, osasun arretarakoa...); horiek guztiek gabe askatasuna formalismo hutsa besterik ez zen, benetan gauzatzeko aukerarik gabea. Eskubide horiek estatuaren esku-hartzea eskatzen du berauek bermatzeko. Horregatik hain zuzen, “eskubide positiboak” ere baderitze.
- “Senidetasuna”, giza eskubideen hirugarren zutabea, ahaztuta egon dena da. Horrek desoreka handiak eragin izan ditu. Gaur elkartasun edo hirugarren belaunaldiko eskubideak aldarrikatzen ditugu (garapenerako eskubidea, bakerakoa, inguramena, etab.), subjektu bakarra gizabanakoa ez dutena, talde dimentsioa dute eta.

Giza eskubideak gizakien kontzientzia etikoaren bilakaeraren seinale da eta bilakaera hori aurrera doa. Gizakiarentzat mehatxu berriak ikusten ditugunean, etika eta zuzenbidetik erantzuteko era berriak sortzen ditugu. Azken urteotan eskubideen hiru belaunaldi horiek banaezinak eta era berean elkarren artean mendetasuna dutela erakusten digun kontzientzia areagotu egin da. Ezin joan daiteke horietako bat besteak ondoan ez dituela : erreala al da adierazpen askatasuna baldin eta ez badugu hezkuntzarako edo komunikabideetara heltzeko eskubiderik?, zertarako balio zaizkie ospitale onak heriotza zigorra dutenei?, enpresa askatasunak justifikatzen al du inguramenaren suntsitzea? Giza eskubideak ez dira bere osotasunean errespetatzen hiru belaunaldiak bere baitan hartu barik.



Hala eta guztiz ere, giza eskubideen tradizio horrek baditu bere mugak ere: batetik, sortuak izan diren antropologiari dagokiona, eta bestetik, eskatzen duten unibertsaltasunari dagokiona. Muga horientzat bientzat ondorengo bi atalak.

3.1. Gizakiak funtsezko duena eskubideen perspektibaren arabera

Historikoki, giza eskubideak liberalismo indibidualista baten testuinguruan sortzen dira Estatuak pertsonen bizitzan eskua gehiegi sartzean ematen den erantzun gisa. Liberalismo horrek antropologia bat du, gizakia eta gizartearekin duen harremana ulertzeko era bat. Bere hipotesi nagusiak honako era honetan laburbil litezke:

- Pertsona nagusiki ulertzen da, indibidua bere izate eta gaitasunen jabe den neurrian. Zenbat eta besteenganako mendetasun gutxiago izan, orduan eta benetan gizatiarragoa izango da pertsona. Beste gizakiekin ezartzen dituen harremanak ez dira bere pertsonaren funtsezko osagarri gisa ulertzen, hala-behar gisa baizik.
- Bestekiko independentzia horrek, zentzu gehien duten harremanak boluntarioki, interesa delako sortzen direnak izatea eragiten du. Harreman horiek normalean, ekonomia edo merkataritza kutsua izan ohi dute. Garrantzitsuena, perspektiba horretan, *nire eskubideak* defendatzea da -edo nire interesak- izan ere, eskubide eta interesen borroka horretatik jaiotzeko behar baita ahal denik eta mundurik onena.
- Gizartea kontratu baten fruitua bailitzan ulertzen da. Elkarbizitza zilegi egiteko jasan behar dugun gutxieneko gaitza da. Gizakion "asmakizuna" da, pertsonen arteko zuzentasuna bermatzen duena. Pertsonak nahita mugatzen dute euren askatasuna harreman seguru eta lasaiek leku izango duten gizartea eraikitzeko.

Pentsamolde indibidualista hori oso barneratuta dago gaur egun, guri atxikita dago "azala haragira" bezala. Gure gizarteak ere etengabe indartzen du: "bere burua egin duen gizonaren" mitoa pentsamolde eta antropologia mugatu horren adibideetako bat besterik ez da.

3.2. Giza eskubide unibertsalak?

Bai, ahulenen eskubideetatik hasita

Besteenganako erantzunkizuna eta gure erro solidarioak ahozten duen perspektibak giza eskubideak arriskuan jartzen ditu. Oskol ideologiko bihurtuko da, desberdintasunak ezkutatu eta herritarren artean diren ingururik gogobetetsuenen solidario ez diren aldarrikapenak babesten dituen eskola. Eta hori giza eskubideen inguruan zabaltzen diren ezaugarrietako baten kontra doa, auskalo, unibertsaltasunarena.

Hortaz, giza eskubideei buruz mintzatzea ez da "nire eskubideez" mintzatzea, lehenengo eta behin, *ahulenen eskubideei buruz* baizik. Ahaztuta dugun Hegoalde txiroko herrialdek begiratu gero, Jon Sobrinoren hitzek durunda egiten dute honakoa esanez; "*gizateria bi taldetan banatuta dago, bizitza ziurtzat ematen dutenak eta ziurtzat baino, bizirik irauteko oinarritzko zeregintzat dutenak. Gure gizateria, berez, eskubideak dituztela jaiotzen direnak eta berez, eskubiderik gabe jaiotzen direnen artean banatuta dago*".

Unibertsaltasunak benetan izan behar badu giza eskubideen ezaugarri bat, biktimen eskubideak defendatetik abiatu beharra dugu, eskubideak ukatzen zaizkien pertsonetatik. Baztertuen, txiroen defentsa giza eskubideen defentsarako aukera baldintza da. Hala ez balitz, pertsona gutxi batzuen pribilegioez ari-tuko gara, unibertsal ezin bihurtzeko eskubide horiek ez baitira eskubideak, pribilegioak baizik. *Giza*



eskubideek berauek izateaz gabetu izan diren eta egun oraindik diren pertsona guztiekiko gure betebeharrak mintzatzen dira.

Beste alde batetik, giza eskubideen unibertsaltasunak badu egun beste oztopo handi bat: eskubideak onartzea Estatu-nazio batenak izatearekin lotzea. Sarritan, eskubideez gozatzea gehiago da herrialde batean “bertakoa” izatearen arabera “pertsona” izatearena baino. Eta giza eskubideen unibertsaltasunean inori ez zaizkio bere eskubideak kenduko “bertakoa” edo “atzerritarra” izan zein ez (hau da, “gu” edo “besteak” horietakoa den ala ez).

Hori dela eta, giza eskubideen defentsak baztertuak eta azkenetatik abiatu behar duela argi ikusten dugu. Ezin hitz egin dezakegu giza eskubideez haienganako gure erantzukizunaz hitz egin gabe.

4. Pertsona eta eskubideen ikuspegi alternatibo baten beharra

Giza eskubideak, indibidualismo kutsuaz, neure eskubide propioak bilatzeko aitzakia politikoa bihur daitezke. Era horretara, gureak “hartzekodunez” beteriko gizarteak lirateke, eta inolako “zordunik” gabeak. Soilik izango besteekin solidario amaieran benetan interesatzen bazait. Liberalismo indibidualistak behin eta berriro dio nahi dudana egin dezakedala baldin eta beste inor zuzenean kaltetzen ez badut. Halere, horrek bidegabekeriara garamatza, baliabideak mugaturik dituen mundu batean bizi gara eta; nik sobera eskatzen dudana euren aukerak murrizturik ikusiko dituzten beste pertsona eta talde batzuegandik irten beharko da.

Horren aurrean, elkartasunak zuzenean kaltea ez eragitea ez ezik, beharra duen bestea laguntzea ere baieztatzen du. Ezin egon daitezke eskubideak era berean ez badira egokitzen zaizkien betebeharrak. Giza eskubideen eta pertsonaren ikuspegi alternatiboak honako hau esaten digu:

- Giza eskubideen izatea beste pertsonak neuk ditudan eskubide berberak dituzten subjektu gisa onartetik sortzen da.
- Horren ondorioz, besteen erantzule sentitzen gara: konturatzen gara haiei gertatzen zaienak gudan eragina duela.
- Betebeharrak eta ardurak ahazteak gizarte solidario bat eraikitzeko ezintasuna dela.
- Gure besteekiko betebeharrak betetzeak pertsona eta gizarte egiten gaituela. Gizalegez hazi eta errealiza gaitzen egiten du. Gure zoriona besteengandik aparte ezin lor daitekeela ikusten dugu, eta are gutxiago, besteen kontra. Konturatzen gara giza-kiok “sare solidario eta arduratsua” dela.

Hortaz, eskubideekin batera, betebeharrak ere eraiki behar ditugu. Horrela izan ezean, bere interes propioak defendatzeko botere gehien duenak aldarrikatzen duen eskubidearen tranpetan harrapatu segituko dugu.

“Ezjakina baina sen onekoa zen nire amak erakutsi zidan, eskubideak bermatzeko beharrezkoa dela aurretiaz betebeharren gaineko akordioa.”

GANDHI, EN UNA CARTA DIRIGIDA EN 1947 A LA ONU



Prozesu horretan lagungarri suerta daitezke lehen aipatutako hirugarren belaunaldiko eskubideen sorrera, elkartasunaren eskubideak deituak elkartasunean egiten dutelako enfasia hain zuzen ere. Oraindik egiten ari diren eskubideak dira, eta horien artean, garapenerako eskubidea, bakea izateko, inguramen osasuntsurako eskubidea, eta abar aipatu ohi dira. Horien ezaugarri nagusiak honako hauek lirateke:

- “Sintesi eskubideak” dira hauek betetzean giza eskubideen beste belaunaldien gogobetetzea esan gabe eta barne direlako. Ezin gauza daitezke gainontzeko giza eskubideak martxan jartzeari esker ez bada.
- Titulartasun indibidual zein talde mailakoa dute. Gizakia isolaturik dagoen izakia ez dela uste dute, gizartean bizi dena baizik. Gizateriaren ikuspegira zabaltzen gaituzte benetako senidetasun legez.
- Botere edo eskubideetan baino, betebeharrak eta erantzukizunetan egiten du enfasi berezia.

5. Erantzukizuna: eskubideen hutsuneei erantzun bat

Ikusi ahal izan ditugu eskubideen kultura txarto ulertu batek izan ditzakeen arriskuak. Interesen beraien defentsarantzko igarotze natural bat oreka dezakeen kontrapisua behar du. Gizartea boteretsuenak abantaila guztiekin jokatzen duen oihana bihurtzen duen defentsa. Kontrapisu hori, esan bezala, *erantzukizunean* dago.

5.1. Perspektiba berria, munduaren kontzientzia berria da

Munduan kokatzeko era berria da, gure jarduera “pribatuek” publikoan dituzten *ondorioen kontzientzia hartzen dugunean* sortzen dena. Gure jarduerak gure pertsonaren mugak gainditu eta besteengan eragina duela konturatzea dakar. Batzuetan zuzenean, beste batzuetan zeharka, bai bizi garen ingurua zapuzten, bai freskatuz, arinagoa bilakatzen. Hots, gure inguruan gertatzen denaren erantzule eta protagonista gara.

Perspektiba berri horrek *mundua begiratzeko dugun era aldatzea dakar*: jadanik ez dut mundua “mundua nirezat” bezala ikusten (ni eta nire duintasuna zaintzera behartuta), *“nire esku dagoen mundua”* bezala baizik. Nik zain dezadan geratzen den errealitatea da. Errealitate guztia hartzen duen mundua: natura eta gauzak, beste pertsonak eta ni neu.

5.2. Izateko era berria du berarekin

Munduan dugun erantzukizunaz jabetzeak bertan kokatzeko dugun era aldatzera garamatza. *Besteetaz kezkatzera* mugiarazten nau, haien egoeraz ohartzera, dituzten beharrez, eskubideez. *Besteak zaintzera* narama, besteen kontuak ardura pertsonala duen zerbait egitera, betebeharrak hutsetik baino harago doan zerbait, ezin itxi daitekeena, sormenera irekita dagoen zerbait da eta. Zentzu horretan, erantzukizunak betebeharrak nozioa gainezkatzen du.

Erantzule garena jakiteak gure munduko egiturekin *kritiko* izatera garamatza, dituen portaerekin baita geureekin ere. Jarrera kritikoak “ekidin ezinak” diruditen gaitzekin konforme egoten eragozten digu badakigulako gizakion erabakietatik datozela. Erantzukizunak *inkonformista* egiten gaitu.

**“Izenburua aldatu eta
Pertsonaren
Eskubide eta
Erantzukizunen
Deklarazio
Unibertsala jarri
beharko litzateke.”**

ADELA CORTINA,
CATEDRÁTICA DE ÉTICA
DE LA UNIV. DE VALENCIA.



Erantzukizun era hori ez da kexa hutsa, *dugun onenaren eskaintza bat* baizik. Eskaintza da nagusiki, gure aurpeirik onena ateratzeko ahalegina, ez gure burua errealizaturik sentitu eta hobetzeko ariketa sinple legez, besteekiko betebeharrak gisa baizik, merezi dute eta.

Erantzukizun horrek nire betebeharrak ezagutzeko aukera ematen dit eta ez soilik menperatzen eta mugatzen nauten kanpo betebeharrak bezala, *guztien ongia bilatzen duten ekintza positiboak* bezala baizik. Ez da soilik otzantasuna, obediencia pasiboa, sinesten dudana horren konplizete.

Erantzukizuna era horretara ulertuta, ez da zama bat gehiago *helduen bizimodu aktiboaren funtsezko ezau-garria* baizik. Pertsona legez garatzen uzten didan zerbait.

Zentzu horretan, nork bere burua ulertzeko era berri bat da. *Antropologia berria* da. Erantzukizunaren jarre-rak denak denarekin erlazioa duela ulertzen laguntzen dit, baita gure ongizatea besteen ongizatearen menpe dagoela ulertzen ere. Gizaki guztiok xede berbera duen sendi bakar baten parte garela ohartzen laguntzen dit. Ez gara izaki independenteak erabat menpekoak baizik eta mendetasun hori ardura osoz onartzen dugu-nean bilakatzen gara gizatiar oso.

5.3. Pertsona guztien kontuetan zerikusia duen erantzukizuna

Erantzukizunak *besteen aldeko ekimenak izatea* dakar. Ondorio praktikoak ditu, ez da soilik "intelektuala" den zerbait. Besteei dena ematean dago, besteen defentsa eta ongizateari.

Horrekin batera, erantzukizunak eskubide puruan legokigukeenari *uko egitea* dakar, guztientzako hel dadin, baztertuak barruan egon daitezten. Jadanik esandakoaren ondorio praktikoak atera: Unibertsal ezin izan dai-tezkeen eskubideak ez dira eskubideak, pribilegioak baizik. Eta egoera hori alda dadin neurriak hartu.

Erantzukizuna ez da kexa eta haserrean gelditzen, iradokitzen du, proposatu eta antolatu egiten da, planifi-katu, bildu, beste batzuekin pentsatu egiten du, parte hartzen du, amets egin, protagonista izan... Erantzukizunak bizi den munduaren errealitateaz kezkatu dagoen giza komunitatea egiten du.

5.4. Erantzukizunerako hezi

Jarraian, erantzukizunean hezteko zenbait orientabide dakargu. Hiritartasunari buruzko oinarrizko agirian aipatu ditugun hiru mailak bereizten saiatu gara: pertsonala, soziala eta instituzionala.

1. Maila pertsonala

- *Geure buruen gaineko erantzukizunaz* kontzientzia piztea. Geure hazkuntza propioa eta gure ekintzen erantzule nagusiak gara.
- Beharrezkoa da ondorioz gabe ezin zeharka daitezkeen *mugak daudela erakustea*.
- Gu guztiontzat onuragarri izan den lana burutu duten *pertsonen adibideak* ematea.
- *Ondo egindako lan baten* balorea berreskuratzea. Gure balioak onura propioa zein besteena ekar dezake.

2. Maila soziala

- Fenomeno gizatiar edo zientifikoak eta teknologikoak *duten konplexutasun osoan* aurkeztea dituzten *ondorio guztiez jabetu* ahal izateko. Hori arlo guztietan egin daiteke noiz edo noiz.



- Errealitatea eta geure aurrean *jarrera kritikoa izan eta lantzea*.
- *Ardurak ematea* ikasleei talde lanetan eskatu edo nahi ez izan arren. Segimendua egin eta egindako lanetik ateratako ondorioak ebaluatu. Erantzule izaten praktikatzen baino ez da ikasten.
- *Familia eremuan* ere erantzukizun handiagoa eskatzen duen hurbileko egoeraren baten gainean hausnartzeko aukera dago: gaixorik den familiako baten bat edo bakarrik dagoen auzokideren bat zaintzea... Familia bezala, sar gaitzkeen lanen bat.
- *Gizartean den arazoren baten gainena ikasleekin batera hausnartu* eta haiekin batera erabakitzea burutu daitekeen *ekintzaren* bat.
- Inolako interesik gabe besteen ongiagatik lan egiten duten *taldeak, elkarteak, plataformak aurkeztea*.

3. Maila instituzionala

- *Ikastetxea inplikatzan du bere osotasunean* garrantzitsua den gizarte mailako konturen batean, jarreraren bat hartu eta ekintzaren bat egiteko aukera ematen diona: baketzearekin, arrazakeriarekin, bazterketarekin, diskriminazioarekin, hirugarren edo laugarren munduak bizi duen egoerarekin zerikusia duena.
- Horrek ikastetxeak bere gizarte mailako ardura ikasleen prestakuntza akademikoa baino harago doala onartzea dakar.
- Hezkuntza komunitate osoan diren talde guztiak hartzen dituen jarduera da.

Zenbait ondorio

- Ezin mintza gaitzke giza eskubideez gure betebeharrak eta erantzukizunez mintzatu barik.
- Giza eskubideak pertsona guztienak dira, eta batez ere, ahulen eta baztertuen daudenenak.
- Besteen eta besteekin erantzule izatea da benetan gizatiar egiten gaituena.

Munduko Hiritarrok

Gure munduko protagonistak gara



MUNDUKO
HIRITARROK



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

1. Bai, baina zein mundutakoak?

Seguruena, gaurko mundua itxuratzen duten prozesuak zein ezaugarriak definitzeko erabili ohi diren izen eta esamolde desberdinak darabiltzagu gure buruetan. “Informazio gizartea”, “Postmodernitatea”, “Globalizazioa”, “Kapitalismo berantiarra”, etab. dira haietako batzuk.

Izendapen horiez haraindian, zalantzarik eragiten ez diguna zera da: *gure bizitzetan*, mundua ulertzeko moduan, munduan jarduteko moduan, *eragin handia duen zenbait aldaketa sozialen* lekuko gara. Teknologia berriak edo gure hirietan beste kultura batzuk egotea izango lirakeke gauza berrien bi adibide. Aldaketa hauek guztiek gauza onuragarriak ekar diezazkigukete, bihozberatasunean haztea ahalbide dezaketenak. Baina, askotan, baztertze, desberdintasun eta munduko gaitzekiko axolagabetasun dinamikak areagotzen dihardute.

Gure bizitzetan eragin handia duen zenbait aldaketa sozialen lekuko gara.

Eskubideen erretorika

Ez da gehiegikeria esatea giza eskubideak paradigma etiko globala bilakatzen ari direla, hainbat frontetik zalantzan jartzen badira ere, eta hainbat lekutan eta jende askorentzat paper erre badira ere. Nolabait, norberak gainerakoen *betebeharrak eta erantzukizunak* ahaztu eta alde batera uzteagatik gertatzen da hau. Eskubide bat ez da berez eraginkorra, dagokion betebeharra dela medio da eraginkorra. Eta hau garrantzitsu izaten da ahulen eskubideez ari garenean .

Beste alde batetik, batzuetan, eskubideen erretorika munduko biztanle guztiei orokor ezin bilaka daitezkeen bizimodu eta gizarte eusteko erabili ohi da. Kontsumoko gizartearen bizimoduaz ari gara, ingurune iraunkortasun eta gizarte berdintasun arazoak direla eta, gizateriaren gehiengoak inoiz eskuragarri izango ez duena. *Unibertsal bihurtu ezin diren eskubideak, eskubideak baino, pribilegioak* direla ohartu behar gara.

Urrutiko erabakiak

Gainerakoen eskubideek dakartzaten “betebeharren” utzikieriaz gain, hiritarrok herri arazoengandik *gaitzuzte*z urruntzen gara ikusten dugu. Asko dira egoera honen zergatiak. Lehenengoa, *gogobetetzearen kultura*n bizi gara, eta hau dela eta, eremu pribatuetan (familia, lagunak, lana, kontsumoa...), nor bere bakarrera bihurtzen da, *guztion ongizateaz* kezkatzea alde batera uzten dela.

Bestalde, honako joera hau ondorengo zerak indartzen du: gure bizitzetan eragina duten gero eta erabaki gehiago *urrutiko guneetan* hartzen direla ikus dezakegu, guk parte hartzeko gaitasuna ez dugun gune horietan, hain zuzen.

Gure munduko protagonistak garenaz ohartu behar gara berriz ere, eta baita gure ingurune hurbilean errealtatea aldatzeko gaitasuna aurkitu ere. Mugimendu sozial global bat (baina lokalean diharduena), pixkanaka eta kontraesanez, azalratzea da jarduteko aukera dugula adierazten digun aldea.

Nortasuna eta gatazka

Munduko gune bakarra osatzeko prozesu honen ondorio gisa, *identitate* kontua indarrez azaltzen da berriro ere. Gizaki orok izateko beharra du, eta baita talde bateko zati izatekoa eta bere burua ezaugarri jakin batzuetan ezagutzekoa. Era berean, beharrezkoa da nortasun hura duintasunez berdina diren gizaki izateko gure modu zehatz gisa *onar dadin*. Zeren alor kultural jakin batean baita gure ulertzeko modua eta horizontea itxuratzen duten oinarriko osagaiak geureganatzen ditugun tokia.

Nortasun hau, konplexua eta dinamikoa dena, eta era askotako osagaiak osatzen dutena, ezin da bestelako talde eta gizakien ekarpenei hertsia. Honela, gure kulturatik bereizten diren eta handituz doazen kultura desberdinak aukera ezin hobea dira elkarri aberasteko.



Baina elkartzea ez dela gatazkarik gabekoa ikusten dugu. Eta honek ez du kaltegarria zertan izan behar. Gatazka, esku-hartzen duten alderdiak hazteko aukera hobezina izan daiteke, baldin eta bide baketsu eta elkar-riketa-bideen bidez kudeatzen badugu. Zoritxarrez, oraindik hau ez da ohikoena.

**Unibertsal
bihurtu ezin diren
eskubideak,
eskubideak baino,
pribilegioak dira.**

2. Hiritartasun-ideia

Hiritartasuna azken urteotan gaurkotasuna hartu duen terminoa da. Hiritartasunaz Europa zaharrea ari da, baita Latinoamerikako herrietan, eta kultur aniztasuneko herrietan, esaterako Australia edo Kanadan, ere. Modan dagoen kontzeptua da...baina aspaldikoa ere.

Aspaldiko bi tradizio

- Alde batetik, **tradizio grekoa**, hain zuzen ere, demokrazia atenastarrarena. Atenastarrek *poliseko partaide izatea* beren bizitzako gora-behera bat baino, funtsezko gauza zela konturatu ziren. Parte-hartze honek guztien arazoan erantzule bihurtzen zituen eta errepublikan parte hartarazten zituen. Atenasen, hiritarra izateak *arazo publikoetan* jardutea esan nahi zuzen, erabakiak hartzeko bide gisa, bortxakeria eta inposaketa baino, elkarriketa eta *deliberamendua* erabiliz. Atenastarrek gatazken erdian hitzaren indarra sarrarazi zuten.

Hala eta guztiz ere, tradizio grekoan, hiritartasunak atzerritarrak, esklaboak eta emakumeak alde batera uzten zituen. Hiritartasun hau etnikoa, aristokratikoa eta misoginoa zen. Tradizio honen garapen historikoak partaide izateko zirkulu berriak lortu ditu (borroka zein atzeraldiekin, eta oraindik ez osorik): generoaren zirkulua, klase sozialen zirkulua eta etniaren zirkulua. Honela, esan genezake tradizio grekoak unibertsaltasunaren hazia zeramala bere baitan, gaur egun oraindik lortzear dagoen hiritartasun unibertsalarena.

- Bestetik, **tradizio erromatarra**. Erromako tamaina zela eta, ezinezkoa izan zen arazo publikoetan zuzenean parte hartzeko ideia gauzatzea. Hala eta guztiz ere, Erromak bazuen zuzenbidea grekoek baino bizkorrago ulertzeko modua eta hiritartasun erromatarra *babes juridiko* gisa ulertu zuen. Hiritarra legearen babespean diharduen eta inperioan zehar honen babespea espero duen hori da. Leku bateko partaide izatea ez zen hemen hain garrantzitsua. Baina bai legeak hiritarrari eskaintzen zion babespea.

Tradizio erromatarra, grekoa bezalaxe, historian zehar hedatzea izan du. Gizakiok geure duintasunetik ondorioztatzen diren eskubideen garrantziaz jabetu gara: eskubide zibilak eta politikoak (1.belaunaldia), eskubide ekonomiko eta sozialak (2.belaunaldia) eta garapenerako zein ingurugiro osasungarria eta bakea izateko eskubideak (3.belaunaldia). Eta ez gizabanako gisa besterik ez, baita, haien berberatasuna iraunaraztearen, bere etorkizuna erabakitzeko gai diren kolektibitate eta herri gisa ere. Gizaki izateagatik babesten gaituzten eskubide hedatze honek tradizio erromatarra aberastu egin du.

Historian zehar aztarnak utzi dituzten bi tradizio hauen ildotik, hiritartasuna ondorengo **bi osagaiak batzearen** ondorio gisa onar dezakegu: hiritartasuna *estatutu juridikoa*, hots, babesten nauen eskubide-gutuna, dakar; eta, aldi berean, barnean behartzen nauen *partaide izateko* zentzua dakar.

**Ez al gara
eskubideen
objektu pasiboak,
subjektu aktibo
eta erantzuleak
baino?**

Zein hiritartasun-ikuskerak da nagusi gure garaian?

Mendebaldeko gogoeta etikoaren zati handi bat eskubideez aritu da: botere publikoari gizakiaren duintasun hauskaitza agertzeko modua zen. Errealitatean *nire eskubideen* babes aratz bilakatu da, hizkuntza honen zilegitasuna *ahulen eskubideen* babesetik datorrenean.



Beste alde batetik, modernitateak eragin zuen estatuaren hazkundeak, estatuaren gainean antzina hiritarrek beren hurkoarekiko zituzten betebeharrak irauli ditu. Egoera honek besteren oinazearekiko hozkeria eta aihergatasuna areagotu ditu. *Honako hau arduragabetzen den hiritartasuna da.*

Amaitzeko, hiritartasuna Estatu nazionaleri besterik ez dagokie (honek, europar garen lez, mundutik zehar jaun/andre bezala bidaiatzea ahalbidetzen digu, gu bezalakoak baina herri txiroetakoak diren bestelako gizaki batzuk gure herrietan eskubiderik –gizaki izateagatik eta ez “tokikoak” izateagatik dagozkienak- ez duten bitartean). *Hiritartasun unibertsala* garatu beharra dago, gizaki ororen generokoak garela kontuan hartzen duena.

Hiritartasun gogotsua, motibatua, garatu beharra dago, tradizio bikoitza –grekoa eta erromatarra- ahazten ez duena, hauen alaba baita. *Eskubideak eta erantzukizunak elkartzeko garaia da.* Eskubideak burujabetasuna babestu eta bermatzen du; erantzukizunak elkartu eta gizatiartzen du.

Hiritartasunaren ikuskera berri baterako funtsezko osagaiak

1. **Eskubide eta erantzukizunen arteko oreka:** lehen aipatu bezala, ez da nahikoa eskubideak edukitzea. Hauek ezinbestekoak ditugu. Baina ez dira nahikoak. Erantzukizunak ere behar ditugu.

Norberarengana hasten den erantzukizuna, norberaren lanean eta bizitzan bere buruaren onena kanporatzean hasten dena; gizateriaz beraz arduratzen den erantzukizuna. Zuzenbideak hiritar izateko eskubidea onartzen badigu ere, erantzukizunak hiritar nagusigoa nabarmentzen du. Honako hau gure bizitzako alderdi desberdinetan –familiar, lagunartean, lanbidean...– zentzua hartzen duen egitekoa da.

Hurkoarengana heltzen den erantzukizuna, nire zati bailitzan sentitzen baitut. Zerbaiteko partaide izatearen zirkulu zorrotzetan gelditzen ez den erantzukizuna, urrutiko gizaki kidekoaren aurpegia, batez ere pairatzen duenarena, antzematen duena, gure gizatasuna arriskuan jartzen den tokia.

2. **Arazo publikoetan parte hartzea:** publikoa gizaki guztion zera da. Ez “onenena”, politika-klasearena, horretarako “balio” dutenarena besterik ez. Arazo publikoak politikoen eta merkatuaren aukeramenean lagatzea, guztiontzako garrantzitsua dena alderdikeria eta interes partikularren eskuetan uzteko modurik onena da. Hiritartasun berri bategi batek gizarteko maila guztietako *ekintzan eta erabakien hartzean* parte hartzeko asmoa du. Horregatik, hiritartasun honen heldutasunaren adierazgarrietako bat elkarte zibiletan askatasunez eta borondatez parte hartzea da.

Modernitateak publikoa eta pribatua bereizteko horma antolatu zuen. Demokrazia liberalak horma hau gure askatasuna bermatuko zuen jardunbide bilakatu zuen. Baina gizartearen parte hartzeak harea publikoan garen guztiarekin (baita geure motibazioekin ere, pribatuak bai, baina naizen hori erabakitzen dutena) sartzeari dakar berekin. Suspertzen gaituen mundu-ikuskera eta bultzatzen gaituen itxaropena alde batera uzten baditugu, publikoari garen onena xixkatzen diogu.

3. **Gatazkak hitzaren indarrez konpontzea:** Errealitatea gatazkatia da. Haserrealdi eta desadostasunen artean aurrera egiten du. Hiritartasun heldu batek gatazka elkarrizketarantz bideratzen du. Sentitzeko modu desberdinen artean komunikazioa eta elkar ulertzea jartzen ditu. Hitzaren indarrean

Hiritartasun berri bategi batek gizarteko maila guztietako ekintzan eta erabakien hartzean parte hartzeko asmoa du.

3. Hiritartasuna taxutzen dihardugun mailak

Hiritartasuna, beraz, publikoaren eremuari lotu ohi zaio eta gizaki bakoitzarentzako estatutu juridiko bat onartzean (1) eta gizakia kolektibitate jakin bateko kide izatean (2) gauzatu da.



Hala eta guztiz ere, hiritartasunaren ohitura estutuz joan da, hauteskunde-parte hartze hutsarekin parekatu arte. Egoera hau dela eta, hiritartasun kontzeptua guztiz txirotu egin zen. Gure ustez, hau gertatu izan da **hiritartasunaren garapena** ez delako kontuan hartu gizakiaren izatea itxuratzen duten **eremu desberdinetan**. Zer esan nahi dugu hau esaten dugunean? Amartya Sen-en proposamenari jarraitzen gatazkaizkiolarik -gizakiaren garapena taxutzeko eremuez ari dena-, hiritartasuna taxutzeko dugun ahalegina hiru eremu edo mailatan egin behar dela uste dugu: (1) maila pertsonala (2) gizarte eta antolaketa-maila eta (3) erakundeen maila. Haietako bakoitzean beharrezkoa da funtsezkotzat jo ditugun osagaiak lantzea: eskubide eta betebeharren arteko oreka, parte hartzea eta gatazken konponbide baketsua. Ikus dezagun orain haietako maila bakoitza.

Maila pertsonala

Nork bere burua hiritartat hartzea funtsezko gauza da hiritartasun gogotsua sustatzeko. Honek **norberaren berberatasunaren eta baieztapen pertsonalaren** inguruan lan egitea dakar berekin, kontuan hartuz gizakia dagokion bizi-garapen prozesuan hiritar gisa dela eta taxutzen dela.

Gizaki oro, gizaki izateagatik eta eskubide zein betebeharrak edukitzeagatik, hiritar dela adierazten duen premisa horretatik abiatzen gara. Honako hau funtsezko osagaia da hiritartasun berri bat eratzerakoan, zeren, egungo egunean, hiritarra izatea eta eskubide batzuk edukitzea estatu batekoa izateari lotuta baitago, eta hau ez dago gizaki guztien eskura (errefuxiatuak, etorkinak, etab.)

Honela, hiritartasun gogotsua eta osoa eratzten duten osagaietako batzuk garatzeko, horretaz ohartu eta gure hiritartasuna maila pertsonalean erabiltzea beharrezkoa dela uste dugu. Beharrezkoa da, beraz, gizakiok:

- Eskubide batzuk, baina baita betebeharrak batzuk, dauzkaten subjektu aktibo bihurtzeko gaitzean (erantzukizuna sustatzea)
- Gure munduko protagonistak sentitu eta izan gaitzean (nork bere burua maitatzea –autoestimua–, konfiantza eta baieztapen pertsonala sustatzea)
- Parte hartzeko zein gatazkarako gaitasunak gara ditzagun, gatazka, hazteko eta mundu konplexuago zein anitzago taxutzeko aukera gisa ulertzen dugula (enpatia, elkarrizketarako gaitasuna eta tolerantzia aktiboa sustatzea)
- Gure bizitzari zentzua ematen dioten esperientzia eta iturburuetan sakon dezagun (gaitasun sinbolikoa sendotzea)

Gizarte eta antolaketa-maila

Gizakia gizartean hazi eta osotzen da. Ezinezkoa da, beraz, hiritartasunaz mintzatzea eta gizabanakoaren mailaz besterik ez aritzea. Gizakiak gainerakoekin bizitzen garatzen du bere hiritartasuna. Gizarte-mailak *gizakiaren eragiletasuna* azaltzea ahalbidetzen du: gizaki bakoitzak bere hazkundearen eragile eta protagonista izan dadila, benetako giza hazkundeak eskatzen duen legez. Gizakiaren eragiletasunak gizabanakoaren eta taldearen gaitasunak lantzea dakar berekin.

Honek zera adierazten du: gizaki bakoitza bizi den munduko eragile eta, kasu honetan, protagonista, denaren ideia. Eta ideia hau, eskubide zein betebeharrak (bizi den errealitatean jardutera eta konprometitzera bultzatzen dutenak) dauzkan gizaki-hiritartat hartzeko beharri lotzen zaio.

Gizarte-mailan hiritartasuna gainerakoekin batera taxutzen da, guztiontzako eskubide zein betebeharrak definitu eta bat jartzean (1), erabakiak hartzean parte hartzeko guneak ahalbidetzean (2), antolatu nahi dugun gizarte ereduaren definizioan parte hartzean (3) eta ezagunak zaizkigun eta partekatzen ditugun ikurrak sortzen laguntzean (4). Eta aurreko guztia, familian, lagunartean, ikasgelan, ikastetxean, auzoan, herrian, hirian...gertatu behar da.

Erakundeen edo arauen maila

Erakundeen maila “jokoaren arauak” ari da, hots, egiturazko alderdiez (esaterako, Konstituzioan jasotako eskubideak egotea, edo Giza Eskubideen Itun desberdinei atxikitzea). Honako hau da historian zehar hiri-



tartasun kontzeptuari gehien lotu zaion maila. Maila hone-
tan, berriz, hiritartasun ideia murriztua geratu da,
hiritartasuntzat botoaren bidezko hauteskundeetan isla-
datzen den hiritartasun politikoa hartu delarik.

Hala eta guztiz ere, lehen esaten genuen bezala, guri
dagokigun erabaki asko esku hartzerik ez dugun urrutiko
guneetan hartzen dela ikusten dugu. Horregatik, hiritarta-
sun gogotsu batek gure bizitzari dagozkien alderdien gainean eragina izateko gaitasuna eskatzen du.

Gizabanakoaren maila:	Gizabanakoa
Gizarte/antolaketa-maila:	Familian, ikasgelan/ikastetxean, auzoan/herrian.
Erakundeen maila	Mundu-maila

Protagonismo hau ezin da taxutu aipatu hiru mailak eta hiritartasuna eratzeke eremu desberdinak kontuan hartzen ez badira. Eta taxutze hau eta hiritar gisa dugun eragina izateko gaitasun hau, gizaki eta mugimendu askok agertzen du: bere ikastegiaz arduratzen den hezitzaileak edota "Rioko Gailurrera" joan ziren gizarte-erakundeek; kontsumo arduratsua erabiltzen duen pertsonak edota Txiapasko biztanleak indijenak; irizpide etikoez non inbertitu pentsatzen duen aurreztaileak edota globalizazio neoliberalaren aurkako mugimenduak; boluntario izateko konpromisoa hartzen duen pertsonak edota kanpo-zorra ezeztatzearen aldeko munduko koalizioak, etab.

4. Zenbait printzipio hezitzaile¹

Atal honetan hiritartasun gogotsu eta arduratsua sustatzeko erabili beharreko zenbait jarraibide didaktiko azpi-
marratu nahi izango genituzke. Printzipio eta ideia orokorrak dira, testuinguru eta egoera bakoitzean zehaztu
behar direnak. Guztiak logikoa den zerean inspiratzen dira: *baliabide didaktikoak lortu nahi diren helburuekin
bat etorri behar direla*. Nola hezi hiritartasun arduratsua bat izateko? Horra hor elkarrizketarako hainbat irado-
kizun.

- Garrantzi handikoa da *gizakiaren* alderdi guztiak *osotasunean* lantzea: buru-alderdia, afektibitate-alderdia eta ekintzari dagokion alderdia. *Buru-alderdia*, bizi garen errealitatea kritikaz ulertzeko; *afektibitate-alderdia*, enpatizatzeke gai izateko, besteren lekuan jartzeko gai izateko eta gure izaera eta bizimoduari begirada kritikoa emateko gai izateko; *ekintza*, ikasketak esanguratsuak izan daitezen, gizakion bizitzan garrantzia izan dezaten eta gauza daitezen: eduki teorikoak eta landutako sentimenduak ez dira baliodunak izango ez badira bizitzarako ikasketa bilakatzen.
- *Globalaren (mundu-mailakoa) eta lokalaren (tokikoa)* artean, eta *gizabanakoaren* eta *egiturazkoaren* artean, etengabeko joan-etorriko bidea egon behar du. Hiritartasun gogotsua taxutzeak mundu-mailako zein egiturazko arazoez ohartzea eta autoestimua edo adierazpentasuna lantzea dakar berekin. Lokalaren gaineko ekintza kolektiboa, gure ingurunea hobetzen duten egitasmoen bidez, proposamen pedagogikoan sartu behar da: ezinezkoa da parte hartzeke ardurak, gauzatzeke biderik gabe sorraraztea.
- Ezaugarri hauek dituen heziketa-prozesu batean ez da zaila ikasleekin, edo irakasleen artean, *gatazkak* sortzea. Hezitzaileen artean "jokaldiaren" ikuskerak desberdinak izan daitezke, eta ikasleak ez omen daude honelako prozesuetara ohituta. Egoera hau gauza onuragarria bezala onartu behar da, eta sormenez erabili, elkarrizketan, ikuspegi desberdinak onartu eta baloratzean, argudio arrazoituak erabiltzeke iaotasunean, iritzia aldatzeko irekitasunean eta abarretan *hezteko aukera* izan dadila.
- Garrantzi handikoa da giro epelak, ulerkorak, *komunikazioa errazten dutenak*, sor daitezen. Hezitzaileak desakordioak babesten saiatu behar dira. Funtsezkoa da baloreak, arauak edo iritzia jarraibiderik gabe egin daitezen; hau da, azterketa, gogoeta, elkarrizketa, ekintza eta esperientziatik abiatuz egin daitezen.

**Baliabide
didaktikoak lortu
nahi diren
helburuekin bat
etorri behar dira.**

¹ Atal hau egiteko Pedro Sáez-en "Desarrollo y Derechos Humanos: retos para la educación" izeneko artikulua eta Miquel Martínez-en "Educación y ciudadanía activa" izeneko artikulua hartu ditugu oinarri.



- Nahitaezkoa da ikastegiko *giroa eta egitura* lehen mailako eragile hezitzaileak direla kontura gaitzen. Honek ikastegiko bizikidetzako arauak zeintzuk diren, agintaritzaren nola kudeatzen den, heziketa-komunitateko arlo desberdinen partaidetza-maila zein den, gatazkak nola konpontzen diren, pentsarazi eta azterraraziko digu, jakinarazi nahi ditugun baloreekin bat datozen ikustearren.
- *Ahaleginaren balio pedagogikoa*, helburu gisa baino, baliabide gisa berreskuratu beharra dago, garrantzitsua baita, gure bizitzetan zehar, gure eskubideak gainerakoekin bateragarriak egitean sortuko diren eragozpenak onartzen ikas dezagun, eta baita gizaki eta gizarte gisa benetako elkartasuna gauzatzeko onartu beharko ditugun mugak ere. Eskubide bakoitzari dagozkion betebeharrak onartzeak nork bere burua gainditzea eta interes kolektiboa eta guztion ongizatea oztopatzen duten norberearen interesei uko egitea eskatzen digu askotan.
- Azkenik, bikaintasuna izan behar dugu helburu: ezin diogu uko egin gizakien eta gure buruen onena kanporatzeari, hori baita gizarteetako aberastasun-iturririk handiena. Kaskarkeriatik ihes egitea da gizarterantzukizuneko eskakizuna eta gainerakoekiko oinarrizko elkartasuneko eskakizuna.



Ingelesa



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

Helburuak

- Ingeleseaz emandako ahozko mezu laburren zentzu zehatza antzematea keinu eta mimikaren laguntzaz.
- Gorputza atal eta agurren gaineko ingeles hiztegia ikasi eta gehitzea.
- Ingeles hizkuntzaren erritmo eta intonazio soinu eta jarraibideetan trebatzea.
- Gorputz atalak antzematea norbere soinean eta besteenetan.
- Jokoan eta eguneroko elkarbizitzan arauak erantzun eta hauek betetzeak duen garrantziaz jabetu (familia, ikastetxea, etab).
- Atzerriko hizkuntzak eta norberarenak diren ahozko zein ez-ahozko komunikazio erak daudela onartzea.
- Jarrera positiboa, harbera eta errespetuzkoa erakustea beste pertsona batzuek parte hartzen dutenean.

Jarduerak

1 Jarduera: “Simon says” – Ziklo guztiak

Deskribapena: Jarduera "Simon says" izeneko joko ezaguna egokitzean datza. Irakasleak ikasleek segitu beharreko jarraibideak aipatuz zuzenduko du jokoa. Honakoa esaten hasiko da: "*Simon says, touch your nose*" ete horrela gorputz atal ezberdinak aipatuko ditu. Ikasleek emandako jarraibideari erantzungo diote aipatutako gorputz atala ukituz. Agindua baino lehenago "*Simon says*" esan ez eta ikasleren batek agindua betetzen badu, jokotik kanpo geratuko litzateke. Helburua ikasleek entzun eta jokoaren arauak kasu egin diezaieten da.

Materiala: Fitxa 1.1.eko galderak. **Dinamika:** Taldeka. **Iraupena:** 20 minutu.

Iradokizunak: Komenigarria da ikasleen aurrean behar bezala beraien artean banatuta jartzea. Jokoa elementu ezberdinekin osa daiteke:

1. eta 2. zikloak: Mural batean pertsona baten silueta marraz daiteke eta gelako horma batean jarri. Ikasleek eskura izango dituzte gorputz atalen irudiak dituzten laminak (ikasleek beraien eginak izan daitezke). Jarraibidea ematean, ikasle bakoitza ordena errespetatuz, dagokion lamina bilatu beharko du marrazkien artean eta silueta barruan ondo kokatu.
3. zikloa: Zailtasun maila igo daiteke hiztegi eta egitura mailako esaldiak konplexuago eginez, esaterako: "Simon says scratch your left ear with your right foot" edo "Simon says put your hands on your head". Ziklo honetan Simonen papera ikasleen artean alda daiteke.



2 Jarduera:

“Hello!” – Ziklo guztiak

Deskribapena: Eguneroko egoera eta egunean zehar diosal eta agur egiten ikasteko ariketa proposatzen da. Irakasleak ozenki azalduko ditu agurtzeko era ezberdinak eta ikasleek erritmoa zein intonazioa imitatuz errepikatuko dituzte. Halaber, ingelesetik gaztelerara eta gazteleratik ingelesera espresio ezberdinak itzultzeko gonbitea egingo die.

Horren ostean, komunikazioa zentzu zabalago batean landuko da. Horrela bada, ikasleek aldarte ezberdinak antzeman beharko dituzte erabilitako intonazioari erreparatuz. Amaitzeko, ez-ahozko komunikazioari ekingo zaio munduan zehar jendeak elkar nola agurtzen duen ikasiz.

Materiala: Fitxa 2.1. eta munduko mapa handi bat (Peters bertsioa gomendatzen da) agur egiteko era bakoitza non egiten den adierazteko.

Dinamika: Taldeka. **Iraupena:** 60 minutu.

Iradokizunak: Komenigarria da hiztegia eta espresioen zailtasun maila ikasleek atzerriko hizkuntzan duten eza-gutzara orokorrera egokitzea.

3. zikloko ikasleek egoera ezberdinak antzez ditzakete jardueran landutako espresioak erabiliz.

Jarduera era grafiko batean ikusteko, *"eskubide berberak baina itxura ezberdinaz"* espresioa agurtzen duen posterrari erreferentzia egin dakioke.

Fitxa 1.1.

Pixka bat pentsatzeko jolastu eta gero

- | | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none">☞ Nola sentitu zarete kanporatu zaituztetenean?☞ Zer gertatzen da arauetara kasu egiten ez diegunean?☞ Uste al duzue garrantzitsua dela arauak egotea?☞ Zer gertatuko litzateke araurik egongo ez balitz jokoetan, klasean, etxean,..? Bakoitzak nahi duena egitea ona litzateke? Zergatik? | <ul style="list-style-type: none">☞ Arauak betetzeari garrantzitsu deritzoazue?☞ Nola erabaki behar ditugu arauak? Pentsa itzazue gure familian, ikasgelan eta bizi garen auzoan errespetatu behar ditugun arau multzoak. |
|--|--|



Fitxa 2.1.

1. Ikasiko dugu ingelesez hitz egiten duten lekuetan bizi diren pertsonak nola agurtzen duten.

Zer esan nahi dute: Hello! / Hi! / Good morning / Good afternoon / Good evening / Good night / Goodbye / Bye bye / See you later..?

Errepika dezagun guztiok batera.

Nola esaten dira ingelesez: Kaixo / Egunon / Gabon / Gero arte / Agur/ Zer moduz?..

2. Beste zenbait bitxikeria...

- Toki askotan hitz egiten da ingelesez, zeintzuk ezagutzen dituzue? Munduko mapan koka ditzakegu? (Hasierako kurtsio batekin arituz gero, irakasleak koka dezake).
- Ingelesa atzerriko hizkuntza bat da. Hori bezala, badira beste batzuk. Zeintzuk ezagutzen dituzue? Zein herritan hitz egiten dira? Ager ezazu mapan leku horiek non dauden.
- Zer-nolako keinuak egin ohi ditugu elkar agurtzeko? Agur diezaion elkarri.
- Beste leku batzuetan jendeak agurtzeko beste era batzuk ditu. Esate baterako:
 - Japonian, badakizue non dagoen? (mapan markatu), jendea makurtu egin ohi da agurtzeko, horrela... Egin dezagun.
 - Ingalaterran metro bateko aldea gorde eta eskua emanaz agurtzen da, baina soilik pixka bat estutuz eta azkar.
 - Holanda eta Belgikan beste pertsona besarkatu eta masailan hiru musu ematen zaizkio.
 - Errusian besarkada handi batez egiten da.
 - Eskimalek sudurra igurtzen dute.
 - Alemanian bosteko batez egiten da.
 - Frantzian besarkatu eta masailan lau musu eman ohi da.
 - Ezagutzen al duzue agurtzeko modu gehiago?

Guztiok dugu geure hizkuntzan adierazteko eskubidea. Jantzeko era ezberdina izateko eskubidea ere badugu baita etxebizitza edo etxe ezberdinak izateko ere bizi garen lekua eta ohituren arabera. Ezberdinak izateko eskubidea eta errespetatzeko betebeharra dugu.

Ezberdintasuna, aniztasuna ona da, horrek mundua aberatsagoa eta dibertigarriagoa egiten baitu. Zain ezazu!



Matematika



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

Helburuak

- Matematikak eguneroko bizitzan duen paperaz jabetzea.
- Arrazonamendu matematikoa erabiltzea egoerak interpretatu eta arazoak argitzeko.
- Pentsaera sinbolikoa eta buru adierazpideak lantzea.
- Pertsona guztiek beharrak beteta izateko eskubidea eta kontsumo arduratsua egiteko betebeharra dutela ulertzea.
- Lankidetzeta eta talde lanerako jarrera azaltzea.
- Sormena, auto-ikaskuntza eta gizartean diren fenomenoen gaineko arazoak konpontzeko gaitasuna garatzea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Zer behar dugu?” – 1. eta 2. zikloak

Deskribapena: Ikasleei egunero burutzen dituzten ekintzak birpasatzeko eskatuko zaie: altxatzen dira, dutxa hartzen dute, gosaltzen dute, ikastetxera joan ohi dira, etab. Hori guztia egiteko zenbait gauza behar dute (elikagaiak, liburuak, koadernoak, eskupainuak...). Gure beharrak betetzeko dugun kontsumitzeko beharraren gainean hausnartzeko gonbitea egingo zaie. Zer behar dugu eskuak garbitzeko? Zer-nolako gauzak behar ditugu ikastetxean? Eta jolasteko?

Jarraian, zenbait egoera matematikoki argitzeko eskatuko zaie kasu bakoitzean betetzen den beharra zehaztuz (fitxa 1.1.).

Azkenik, ikasleei eskatuko zaie beharrak eta gogo edo nahiak ezberdintzeko eta taldeka mural bat egin dezaten pertsona guztiek beteta izan behar dituzten funtsezko beharrak azalduz. (fitxa 1.2.).

Materiala: Fitxa 1.1. eta 1.2., kartulinak, errotuladoreak, margoak muralak egiteko.

Dinamika: Taldeka.

Iraupena: 60 minutuko bi saio.



2 Jarduera:

“Problema segida” – 3. zikloa

Deskribapena: Produktu bat egiten denetik merkaturatu arteko prozesua azaltzen duen bineta segida bat proposatuko zaie. Ikasleek taldeka prozesu osoa deskribatu beharko dute eta egingo diren galderei erantzun. Komikia osatu beharko dute problemaren konponbidea azken binetan irudi baten bitartez emanez.

Materiala: Bineten segida (fitxa 2.1.).

Dinamika: Taldeka.

Iraupena: 60 minutuko saio bat.

Fitxa 1.1.

Hemen dituzue gauza ezberdinak erostera doazen lau pertsona. Lagundu duten problemari konponbide bat aurkitzen eta esan ezazue zein behar betetzen dituzten.

Sergiok

Barizela dauka. Medikua pilula pakete bi eta pomada bat agindu dizkio. Ama botikarra joan da. Pilula kutxa bakoitzak 3 euro balio du eta pomadak 4 euro, zenbat balio du guztiak orotara?

Irunek

Oso gozozalea da. Astesaria eman diote eta diru guztia gozokietan xahutzea erabaki du. Txikle 2, pipa pakete 2 eta 6 erregaliz erosi du. Orotara, zenbat gauza erosi du Irunek? Nebari txikle bat eta pipa pakete bat ematen badio, zenbat gauza geratuko zaizkio?

Omar eta Saioa


Egiten duten bildumako kromoak trukutzen ari dira. Omarrek 17 kromo dauka eta Saioak berak errepikaturik duen bat eman dio. Bilduma osoak 20 kromo badiu, Zenbat falta ditu Omarrek?

Anak

Kirola egiteko oinetako berriak behar ditu. Denda batean oso politak eta marka ezagun berri batekoak diren batzuk ikusi ditu, 48 balio dute. Beste denda batean beste batzuk daude, hauek ere politak dira baina marka ezezaguna dute, 32 euro balio dute. Zenbat gehiago balio dute lehenengo dendakoek? Non uste duzu erosi behar dituela? Zergatik?



Fitxa 1.2.





- Behar garrantzitsuak al dira jatea, arropa janztea edo jolastea?
- Eta gozokiak jatea edo markako arropak janztea?
- Zeintzuk dira beharrik garrantzitsuenak?

**Guztiok dugu oinarrizko beharrak beteta izateko eskubidea.
Era berean, gure portaeren bitartez zilegi egiteko betebeharra dugu.**

**Taldeka eta irudimen handiz, pertsona guztiek beteta izan behar dituzten
beharren inguruko mural bat egin ezazue.**

Fitxa 2.1.



Zenbait galdera...

- Zenbat diru eskuratzen du nekazariak bildutako kafe kilo bakoitzeko?
- Diru kopuruaren aldetik, zein ezberdintasun dago nekazariak irabazten duena eta supermerkatuan erosten dugunean ordaintzen dugunaren artean?
- Produktua saltzen digun enpresak diru asko irabazten du. Kalkula ezazue zenbat irabazten duen kafe kilo bakoitzeko. Zertan uste duzue gastatzen duela diru hori?
- Alde handia dago nekazariak eta enpresak irabazten dutenaren artean. Nola uste duzue konpon zitekeela arazo hori? Marraz ezazue konponbidea azken binetan.

Guztiok dugu gure lana aitortzeko aintzat hartua izateko eskubidea

Hala eta guztiz ere, kasu askotan ez da baloratzen.

Pentsa itzazue hori gertatzen den zenbait egoera

(esate baterako, aintzat hartzen al dugu gure gurasoek etxean egiten duten lana?).

Nola jokatu behar dugu etxean, ikastetxean, gure auzoan edo hirian,

...egiten den lana aintzat hartua izateko eskubidea bete dadin?



Etika - Erlijioa



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

Helburuak

- Pertsona guztientzat eskubideak bermatuta egoteak duen garrantzia onartzea.
- Ulertzea norbere ekintzek beste pertsonen eskubideengan eragin nabarmena dutela.
- Eskubide eta betebeharren elkarrekikotasunaren kontzientzia hartzea.
- Irudimena eta sormena garatzea.
- Talde lanean lankidetzarako jarrera hartzea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Ibilalditxoak gure eskubideetatik” – 1. eta 2. zikloak

Deskripzioa: Seguruenik, ikasleak egun batzuk lehenagotik ikastetxea apaintzen duten poster batzuekin jabetu dira.

Ikasleei eskatuko zaie taldeka poster batez ohartu eta gainontzekoei honakoa azaltzeko: zer irudi ikusi dituzten, posterrak zer dioen, leku ezberdinetako jendea dagoen, zer iruditu zaien deigarria, eta abar. Irakasleek ikaslearen aurkezpena eta horrekin transmititu nahi den mezua osatuko dute: *guztiok ditugu eskubide batzuk eta bete daitezten garrantzitsua da. Horretarako, pertsona bakoitzak bere erantzukizun eta betebeharrak onartu beharra du, bizitza esparru ezberdin guztietan munduko biztanle den legez dagozkionak: familia, ikastetxea, auzoa, hiria, etab.*

Materiala: Posterrak.

Dinamika: Taldeka.

Iraupena: 60 minutu.

Iradokizunak: Bisitaldiaren ostean, pertsona guztiek eskubide batzuk bermatuta izatearen garrantziaz hausnar daiteke zein poster izan duten gustukoak eta zergatik komentatuz.



2 Jarduera:

“Eskubide eta betebeharrak adierazten ditugu” – 3. Zikloa

Deskripzioa: Ikasleei posterrak arretaz begira dezaten eskatuko zaie. Taldeka lan daitezke honakoak: posterrak nola ordenatuko lituzketen, zeintzuk diren funtsezko ideiak eta gero, taldeka, aurkeztu beharko dute (antzezpenaren bitartez, lehiaketara aurkezteko marrazkia, idazlana edo komikia edo egindako berri bat, ...) posterrek iradoki diena.

Materiala: Posterrak.

Dinamika: Taldeka.

Iraupena: 60 minutu.

Iradokizunak: Poster jakin batzuen edukiaren gainean hausnar daiteke. Horrela, adierazpenerako eskubidea eta entzuteko betebeharraren inguruan lan egin daiteke (honakoa azaltzen duen posterra: “*oreka egon behar du eskubide eta betebeharren artean*”), elkarbizitzarako arau batzuk izatearen garrantziaz (“*mundua ez dabil guztiontzako eskubide eta betebeharririk gabe*”), eta abar.

3 Jarduera:

“Eskubide eta betebeharrak imajinatzen” – 3. Zikloa

Deskripzioa: Ikasleak taldeka jarriko dira eta talde bakoitzak posterretako bat hautatuko du lan egiteko. Taldeak prentsan, publizitatean, eta abar posterraren esanahia eta sinbolismoa osatzeko irudiak bilatu beharko ditu, alegia, bertan adierazten denaren adibidea emango dutenak. Amaitzeko, talde bakoitzak lortutako zatiekin eta gelan aurkeztu ondoren, bertan jarriko dira girotzeko.

Materiala: Posterrak, aldizkariak, egunkariak, publizitate foiletoak, argazkiak, kartulinak, artaziak, lekedak, errotuladoreak.

Dinamika: Taldeka.

Iraupena: 60 minutu.



4 Jarduera:

“Zeintzuk dira gure eskubide eta betebeharrak?” – Ziklo guztiak

Deskripzioa: Ziklo guztiakin aurreko jarduera guztiak eginda daudenean, hausnarketa egingo da oinarrizko eta ezinbesteko diren eskubide eta eskubide horiek bete eta berma daitezen dagozkigun betebeharrei buruz. Ondoren, ikaskide guztiakin komunean jarriko da. Amaitzeko, gune handi bat zuriz duen posterra behatuko da egiten den galderari erantzunez: “zeintzuk dira gure eskubide eta betebeharrak?”

Materiala: Margoak, errotuladoreak, etab.

Dinamika: Taldeka.

Iraupena: 60 minutu.

5 Jarduera:

“Printzesa gudaria” – Ziklo guztiak

Deskripzioa: Ikasleen artean *printzesa gudariaren* ipuina banatuko da. Bakoitzak bere irakurrita, testuarekin erlasionaturiko jarduera batzuk proposatuko dira. Ikasleek fitxa 5.1.ean planteatutakoaren arabera beste ipuin bat marraztu eta idatzi beharko dute. Era berean, taldeka bilduko dira azaldutako kontuen gainean hausnartzeko.

Materiala: Fitxa 5.1.

Dinamika: Banaka eta taldeka.

Iraupena: 60 minutuko saio bi.

Iradokizunak: Jarduera landuko den mailaren arabera, ipuina banakako irakurketarako bana daiteke edo irakasleak konta dezake.

Eginiko galderetako batzuk erlijio arlokoarekin hertsiki lotuta dira. Edozelan ere, jarduera gara daiteke, galderok saihestuz, Etika edota Tutoretza arloetan.



Fitxa 5.1.

Printzesa gudaria

Urrutiko herri batean, gudari ausarta bat errege izendatu zuten. Daniel izena zuen. Errege berria ezkondu egin zen eta Daniela izeneko alabatxo bat izan zuten. Erregina gazte zelarik hil zen eta berak alaba hezi behar izan zuen.

Erregea, bere ministroek kexatu arren, printzesa arte guztietako adituez inguratu eta gudarako prestatu zuen. Danielak bere garaian neska gutxi batzuek zituzten aukera haiek guztiak aprobetxatu zituen bere aitari eskerrak emanez.

Ministroek, Daniela buruan zutela, edozein arte eta erresumako neska eta gazteak borrokarako prestatzea debekatzen zuen lege bat onetsi zuten.

Urteek aurrera egiten zuten eta "Daniel handia" zahartzen ari zen. Bere ministroek, herria menpean eta engainaturik zutenek, bere lekua haietako batentzat utz zezan konbentzitzen saiatzen ziren. Erregeak, haatik, erantzun egin zuen: Hurrengo erregina neure alaba Daniela izango da!".

Ministroak kexatu kexatu egin ziren: "Emakume bat? Ezinezkoa da!".

Lehenengo ministroak konbentzitu nahian: "Herriak ez du berak esandakoa beteko. Herritarrek zu bezain indartsua den norbait nahi dute".

Erregeak, bere alabaren gaitasunez seguru zegoela, honakoa esan zuen ahots indartsu batez: "Bera oso ausarta da! Erakustea nahi al duzue?".

Ministroak, bere postua galtzeko beldurrez, ez zion kontrakorik esan eta zera gaineratu zuen: "Hiru

egun barru, herrian jaiak ospatuko dira. Zure alaba lehoia hiltzeaz ardura daiteke".

Erregea larritu egin zen printzesak bizi zezakeen arriskuan pentsatuz, baina ez zion erronka egiteari ezetzik eman. Ministroek alde egitean Daniela deitu eta gertatutakoaren berri eman zion. Printzesak, bere aitari eskerrak eman eta herria, ministroek menperatu eta engainatuta zeukatena kontuan hartuz, onartu egin zuen.

Baina gau hartan, neskak, beldurrak tragatuta, jauregitik ihes egin zuen. Etxola batera heldu eta hostatu eskatu zuen. Han zegoela etengabe entzun ahal izan zituen lehoien orroak.

Ehiztariak, etxolako jabeak, honakoa esan zion: "Lehoiak nire etxola inguruan dabilta. Bihar ehizatzeraz joango naiz eta baten bat hilko dut, seguru nago".

Neska ziztu bizian irten zen etxolatik eta hurrengo hiru egunetan zehar baso eta herrietan barrena ibili zen. Leku guztietan entzuten zuen lehoiei buruz hitz egiten. Urrats bakoitzeko haiekin topo egin eta ihes egin behar zuen. Etsita zegoen! Zer egin zezakeen?

Eguna heldu zen. Herriko plaza beteta zegoen. Lehoiaren kaiola, aske uzteko prest. Neska ez zen inondik ageri.

Ministro batzuek, herria erregearen kontra matxinarazten ahalegintzen ari zirela, zera oihukatzen zuten: "Emakumea da, ez da azalduko!".

Erregeak etsita so egiten zuen biderantz eta plazako sarrerarantz..., azkenean azaldu zen arte.



Daniela lehoiaren aurrean jarri zen. Hasieran inor ez zen txalotzen eta bere alde zeudela adierazten ausartzen. Bakarrik sentitzen zen basapizti haren aurrean. Zanpatuta zeuden bere herriko gizon-emakumeak begiratzen zituen. Azkenik, herriko emakumerik gazteenak jesarlekuetatik altxatu ziren eta abesti eta oihuez animatzen hasi ziren. Segidan bat egin zuten beste guztiek, adin guztietakoak, eta amaitzeko, gizonak. Egia esan, guztiak bizi ziren handik printzesak baino ezin ken zezakeen erregearen kontseilari baten menpe.

Eta irabazi egin zuen hainbat beldur izanda ere. Ikasten pasatako urteek emaniko zuhurtziak, adoreak eta adimenak lehoiari aurre egiten eta geroago erregearen sasi ministroak txikitzen lagundu zioten.

Egun hartan bertan, neskak demokratikoki hautatutako gobernua eratu zuen, gizon-emakumez osatua. Herritar guztiei berak izan zituen aukera berberak eskaintzen zizkien arau berriak onetsi ziren.

Jarduerak

- Nola imajinatzen duzue Daniela?. Egin ezazue irudi bat.
- Lehoiaz gain, noren aurka aritu behar izan zuen Danielak? Erraza izan al zen borroka hura?
- Emakumeek gizonak dituzten eskubide berberak dituztela uste al duzue?
- Orain pentsa ezazue zuen familietan, ikastetxean, hirian eta bizi zareten munduan. Emakumeek gizonak dituzten aukera berberak dituztela uste al duzue?
- Alda ezazue ipuina eta protagonista gizon bat dela imajinatu, aldatzen al da istorioa?
- Ezagutzen dituzue Biblian azaltzen den hainbat pasarte, Jesus garai hartan diskriminaturik zeuden emakume eta beste pertsona batzuekin topo egiten zuen pasarteak..., Tratu ezberdina al zuen batzuekin eta besteekin? Eta zuek, ba ala duzue tratu ezberdinik?
- Pasarte horietako batzuk bila ditzakezue eta zuen ikaskideei kontatu. Jesusen esanetan, nola jokatu behar dugu baztertuen dauden eta behar handien duten pertsonekin?

Pertsona guztiok eskubide berberak baditugu, baina ez aukera berberak, desberdintasuna gertatzen ari dela da, bidegabekeria. Desberdintasunik egon ez dadin, pertsonen eskubideak errespetatu daitezten ahalegindu beharra dugu.



Gorputz hezkuntza



MUNDUKO
HIRITARROK



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

Helburuak

- Gaitasun fisikoak eta trebetasun motoreak praktikan jarri jarrera solidarioak sustatzen dituzten jardueretan parte hartzeko.
- Mugimenduaren koordinazioa eta lankidetzaren bultzatzea.
- Euskarri izateko oinarri baten gainean oreka eta desoreka egoerak probatzea.
- Espazioan orientatzea distantziak eta norbere leku aldaketan norabidea kontuan izanik.
- Leku aldaketetan txandak gordetzearen garrantziaz ohartzea oreka egon dadin.
- Eremita ezberdinetako aniztasuna ezagutzeko: familia, ikasgela, hiria, mundua, pertsona guztiek eskubide berberak dituztela ulertuz egoera, sexua, sinismenak eta itxura fisikoa kontuan hartu barik.
- Jarrera positiboak garatzea diskriminazio egoerak atzeman eta errefusatzeko aniztasuna aberastasun legez baloratuz.
- Errekurtso eta bitartekoen banaketarako aukera bidegabeak ezagutu eta probatzea jolasen bitartez.

Jarduerak

1. Jarduera: “Berdinak edo ezberdinak?” – 1. eta 2. zikloak

Deskribapena: Irakasleak taldea banku baten gainean jartzera gonbidatuko du. Behin ikaslea jarrita, helburua irakasleak emandako jarraibideen arabera lerroan jartzea dela azalduko da: ile-kolorea, begietakoa, altuera, eta abar. Jarduera amaitutakoan hausnarketa txiki bat egingo da ariketak ikasleentzat suposatuta izan duenari buruz.

Materiala: Talde osoa sartzeko moduko luzera duen bankua, fitxa 1.1.

Dinamika: Taldeka.

Iraupena: 30 minutu. Jardueraren iraupena luza daiteke taldeak hausnarketarako hartutako denboraren arabera.

Irakazizunak: Irakasleak igoko diren oinarria alda daiteke eta taldearen adina eta gaitasunen arabera egokitu. Horrela, zabalera eta altuera ezberdinetako bankuak aukera daitezke. Jarduera koltxone-ta edo zoruan ere egin daiteke zinta isolatzailearekin bi lerro paralelo markatuta.



2 Jarduera: “Zubiak eraikitzen” – 1. eta 2. zikloak

Deskribapena: Jarduera gunee bat lurrian zuzenean sostengatzeko ezer jarri barik zeharkatzean datza. Ikasleei azalduko zaie alegiazko ibaia zeharkatu behar dutela "busti" gabe pasatzea ahalbidetuko dien zubia osatuz. Zubia egiteko material ezberdina emango zaie. Ikasle bakoitzak objektu bat eramango du beste ertzera. Lehenengo eta behin eraman nahi dutena hautatuko dute eta zubia egiteko erarik onena zein izan daitekeen pentsatuko dute (esaterako egunkariko orriak lurrian jar ditzakete ertzerantz aurrera egiten duten neurrian). Ikasleek gunee birritan zeharkatu beharko dute (joana eraman nahi duten objektuarekin eta gero itzuli).

Jolasaren helburua beste ertzera zubitik atera eta erori gabe heltzea da. Nork bere oreka gorde behar du eta inorekin talka ez egiten saiatu. Horretarako, garrantzitsua izango da pasatzeko txandak errespetatzea eta elkarri laguntzea oreka mantentzen. Jolasaren amaieran Fitxa 2.1an azaltzen diren iradokizunekin hausnarketa egingo da.

Materiala: Egunkariak, oihalak, egurrezko oholak eta fitxa 2.1.

Dinamika: Taldeka.

Iraupena: 30 minutu. Jardueraren iraupena luza daiteke taldeak hausnarketarako hartutako denboraren arabera.

Irakokizunak: Gomendagarria da jarduera hastea ikasleek zer eraman nahi duten aukeratu eta zubia egiteko eskura dituzten materialak behatzeko denbora utziz. Horretarako errekurtso ezberdinak jar dakizkieke eskura: paperak, oholak, eta abar.

3 Jarduera: “¡Ura!” – 3. Zikloa

Deskribapena: Taldeka eta ikastetxeko patioan, ontzi batzuk urez bete beharko dituzte. Talde bakoitzak pertza ezberdina izango du ura garraiatzeko: talde batek koilaratxoak erabiliko ditu, beste batek iragazkiak, beste batek ahoan garraiatuko du, beste batek platerak erabiliko ditu eta beste batek edalontziak. Jolasean ordu laurden eman ostean, talde bakoitzak lortu duenaren ezberdintasunak ikusiko dira.

Materiala: Ontziak, koilaratxoak, iragazkiak, edalontziak, platerak eta fitxa 3.1.

Dinamika: Taldeka.

Iraupena: 30 minutu.





Irakokizunak: Zailtasun maila handiagoa jar daiteke pertzetara iristeko ibili behar duten zirkuituan oztopoak jarrita.



Fitxa 1.1.

Igo gaitezen banku honetara. Bagaude? Oso ondo! Orain lekuz aldatuko gara bankutik jaitsi gabe. Kontuz ibili! Garrantzitsua da inor ez erortzea eta zorua ez ukitzea. Elkarri lagun diezaiokezue lortu ahal izateko. Prest zaudete? Goazen bada.

Gure ordena honakoen arabera izango da:

-  Ile-kolorea. Ilehorriak aurrean jarriko zarete eta beltzaranak atzean.
-  Altuera. Altuenak atzean.
-  Neskak atzean eta mutilak aurrean.
-  Begietako kolorea. Begi marroideak bankuaren aurreko aldean, begi urdinak dituztenak erdian eta begi berdedunak atzean.

Zertxobait pentsatzeko...

- Zer moduz jolasa? Ondo pasatu duzue?
- Nola lortu duzue lekuz aldatzea erori gabe?
- Berdinak al gara guztiak klasean? Zer-nolako ezberdintasunak daude zuen artean?
- Ikusi ahal izan dugun klasean ez garela guztiok berdinak: batzuk ilehorriak eta beste batzuk beltzaranak, neskak eta mutilak daude, ...Altuagoa edo baxuagoa izatea garrantzitsua dela uste duzue edo garrantzitsuagoa den beste zerbait delakoan zaudete?
- Gure etxeetan, denok berdinak gara? Nolakoak dira zuen ama, aita eta neba-arrebak? Pertsona ezberdinak ikusi ohi ditugu gure auzoan edo hirian?
- Munduan oso pertsona ezberdinak daude, arraza ezberdinetakoak eta gureak bezalakoak ez diren ohiturak. Zer deritzozue ezberdinak izateari? Hobe al da era batekoa edo beste batekoa izatea? Zergatik?
- Nolako litzateke mundua guztiok berdinak bagina?

Fitxa 2.1.

Opari bat egin nahi diogu gure lagun bati. Neska hau ibai oso sakon baten beste aldean bizi da. Gurutzatu beharra dugu, baina ez dugu busti nahi.

- Hemen dauden gauza hauetatik, pentsa ezazu zure lagunari zer oparitu nahi diozun.
- Beste aldera joateko txalupa edo zubia egin behar duzu. Hemen duzu zenbait gauza: paperak, oiha-lak, oholak... Zein da ura ukitu gabe ibaia zeharkatzeko modurik aproposena?
- Kontuz gurutzatzean! Talka eginez gero, uretara eror zaitzekete. Oreka gorde edo elkarri lagundu.

Zer moduz bidaia?

- Baliagarri izan al zaizue egin duzuen txalupa?
- Zer deritzezue zuen kideek eginiko txalupei?
- Inorekin talka egin al duzue? Elkarri lagundu diozue Elkarri laguntzea garrantzitsua dela uste al duzue?
- Baten batek zeharkatu arte itxaron al duzue gero zuek pasatu ahal izateko?
- Jolasak funtzionatuko luke baten batek "pasatzeko eskubidea duela" esanez gero eta besteek ere "igarotzeko eskubidea dutela" pentsatu ezean?

Fitxa 3.1.

Hausnartzeko

- Zaila izan da ura garraiatzea? Nola sentitu zarete jolastu bitartean?
- Zergatik uste duzue beste talde batzuek zuena baino emaitza hobea lortu dutela ura garraiatzean? Beste talde batzuek errazago izatea bidegabea dela uste al duzue?
- Pertsona guztiok eskubide berberak ditugu, hala eta guztiz ere, guztiok ez ditugu bitarteko eta aukera berberak eskubideok gauzatu ahal izateko. Gauza batzuk errazagoak dira gizonezkoentzat emakumezkoentzat baino, eta beste batzuk diru gehiago dutenentzat. Bidezkoa dela uste al duzue? Pentsa ezazue zuen etxeetan hori gertatzen den adibideren batean, zuen hirian, munduan...
- Geuk ere badugu erantzukizunik pertsona guztien eskubideak bete daitezen, aukera berdinak izan ditzagun, aberastasuna eta errekurtsioak era orekatuan bana daitezen. Zer egin behar dugu hori guztia lortzearren?

Gaztelania



MUNDUKO
HIRITARROK



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

Helburuak

- Testu idatzien zentzu orokorra antzematea.
- Komunikazio kode ezberdinekin lan egiteko gaitasuna eskuratzea: ahozko hizkuntza, idatzia, grafikoa eta publizitarioa.
- Ahozko perpausa egitura egokiak erabili egoera eta gertaerak deskribatzean.
- Testu idatzi labur eta xumeak idaztea zentzu osoko perpausak erabiliz eta oinarrizko idaztarauak errespetatuz.
- Munduko bizimodu eta baldintza ezberdinak ulertu eta errespetatu.
- Pertsona guztien heziketa, etxebizitza eta duintasuneko bizitza izateko eskubideaz jabetu eta beti ez direla oinarrizko eskubideak bermatzen ulertzea.
- Sormena garatzea ahozko zein idatzizko adierazpenean.
- Adeitasun eta entzuterako oinarrizko arauak errespetatzea, hitz egiteko txandak, bai eta iritzi ezberdinak ere.
- Publizitate eta modaren eraginez kontziente izatea nork bere jokaeran kontrol handiagoa izan ahal izateko.
- Irudimena garatzea autonomia iturri gisa kontsumismoaren aurrean.

Jarduerak

1 Jarduera: “Munduko etxeak” – 1. eta 2. zikloak

Deskribapena: Lau talde egin. Taldeei neska-mutil batzuek euren etxea deskribatzen duten testu bana eman-
go zaie. Testua irakurritakoan, ikasle bakoitzak deskribaturiko etxea nola imajinatzen duen
marraztuko du. Ostean, talde bakoitzeko kideek irudiak klaseari erakutsiko dizkiote etxebizi-
tzako xehetasunak eta ezaugarriak azalduz.

Materiala: Fitxa 1.1., irudiak egiteko arkatzak, margoak, papera, etab.

Dinamika: Banaka eta taldeka.

Iraupena: 60 minutuko bi saio.

Iradokizunak: Jardueraren abiapuntu eta osteko hausnarketa, *guztiok eskubide berberak ditugula, baina
eskubide guztiek ez dutela itxura bera azaltzen* dioen ideia-irudiaren ingurukoak izan daitezke.
Gaiari buruzko posterra erabil daiteke jarduerarako material osagarri gisa.



2 Jarduera:

“Alda dezagun moda” – 3. zikloa

Deskribapena: Ikasleek nahiago dituzten arropa marken gaineko inkesta txiki bat egin ondoren, eta ikasleen artean modan den markak kontsumitzeak duen garrantziaz mintzatutakoan, taldeak eratuko dira. Hausnarketarako materiala erabiliko da, fitxa 2.1.koa, taldearekin markak eta publizitateari buruz hitz egiteko. Hori egin ondoren, talde bakoitzak bere arropa zein oinetakoetarako marka bat asmatuko, eta iragarki batean publizitatea egitekoera pentsatuko du, irudiak erabiliz, sloganak eta publizitaterako hizkuntzaren elementuak. Euren ustez garrantzitsuenak izan beharko luketen markaren ezaugarriak azpimarratu beharko (ingurunearen errespetua, produktuen kalitatea, prezio justua, langileen eskubideen errespetua, engainatzen ez duen publizitatea...). Amaitzeko, markak klaseari erakutsiko zaizkio eta baloratu egingo dira ezagutzen ditugun eskubideak aztertuz (lana, ingurumena...), baita betetako betebeharrak ere.

Materiala: Kartulinak, errotuladoreak, lekedak, artaziak, etab.

Dinamika: Banaka eta taldeka.

Iraupena: 60 minutuko saio bi.

Fitxa 1.1.



Kiuk-en etxea: iglua Poloan

Nire izena Kiuk da eta Artikoan bizi naiz. Kontatuko dizuet nire etxea eta herria nolakoak diren. Gure etxeak iglu deitzen dira eta izotzaz eginda daude. Oso azkar egiten ditugu. Elurretarako aitzo batez izotz oholak moztzen ditugu. Borobiletan jarri ohi ditugu bata bestearen gainean eta barrurantz, laranja erdiaren antzera.

Sabaia oso sendoa da. Gainetik ibil gaitezke. Nik sarritan egiten dut!

Etxean sartzen garenean kandela bi pizten ditugu. Dena argiz betetzen da. Lilugarria da.




Sug-en etxea: oihaneko etxola

Nire izena Sug da, 7 urte ditut eta pigmeo naiz. Bisitatzera etorritz gero, harritu egingo zara, bai horixe, hemen denak oso baxuak gara eta.

Oihanean bizi gara. Nik oso gustoko dut. Oihanean bizitzeko behar dugun guztia daukagu. Hemen ez dago denarik, baina ez ditugu behar. Oihanean jateko ehizatzen dugun animalia asko dago. Fruitu oso goxoak dituzten zuhaitz asko ere badaude.

Herri txikietan bizi gara. Herrixka bakoitzean 10 bat etxe dago. Guk etxola deitzen diegu etxeei. Gure herrixketan emakumeek egiten dituzte etxolak. Oso txikiak dira eta pilota erdiaren itxura dute. Teilatuak hosto oso handiez egin da daude euria egiten duenean busti ez gaitezen. Beroaz eta eguzkiaz ere babesten gaituzte.

Oihanean ez da negurik. Bero da beti eta ibaian baina gaitzke urte osoan.



Ibrahim-en etxea: jaima basamortuan

Nire izena Ibrahim da eta sahararra naiz. Afrikako iparraldean bizi naiz, ez gaude hain urrun! Gure etxea basamortua da. Areaz beterik dago eta ia ez du inoiz euririk egiten. Egunez bero handia dago eta gauez hotz handia.

Gure etxeak oihalez eginda daude. Jaima deritzegu. Sei metroko altuera dute eta lau luzeran. Bertan biltzen gara familiak. Ez dugu altzaririk, soilik mahairen bat edo beste. Horrela jolasteko leku gehiago dugu.

Onena gaua heltzean etxetik ateratzea da. Zerura begiratu eta izar guztiak ikusten ditugu, ez dago ezkututzen dituen etxerik eta.



Martaren etxea: baserria

Kaixo! Nire izena Marta da eta 9 urte ditut. Nire herria txikia baina polita da. Enparantza bat du, iturri bat eta jende asko dago. Ni herritik kanpo, baserri batean bizi naiz. Zuria da, teilatu gorriarekin. Teilatuan oso leiho xumea dago, ganbarakoa, gauza mordoa gordeta dagoen lekua.

Gure baserriak solairu bi eta sotoa ditu. Oso handia denez, barruan hotz da, eta hori dela eta jantokiko tximinia pizten dugu.

Animalia asko dugu. Beheko solairuan untziak eta oiloak bizi dira. Txakur bat ere dugu, Jai izena du. Bigarren solairuan gure logelak daude, nire anaia txikiarekin egiten dut lo.

Fitxa 2.1.

Inkesta

Gosaltzeko esnea beste zerbaitekin hartzen dut beti	Kirolerako oinetakoak erostean, marka honetakoak nahiago ditut
Nahiago ditudan zerealak dira.	Gehien gustatzen zaizkidan gozokiak
Postrerako nahiago ditut jogurtak	Motxilarik onena honako markakoa da
Gehien gustatzen zaidan edariaren izena da.	Nahiago dudan arropa marka
Nire ustez jolasik onena	Telebistako nire iragarkirik gustukoena

Taldetan pentsatzeko

Askotan markaren arabera erosi ohi ditugu gauzak. Oro har, modako markadun gauzak garestiagoak dira... Ziur al zaude hobeagoak direla?

- Zer-nolako eragina du gugan publizitateak erosterakoan? Eta modak?
- Marka jakin bateko produktuak hobeak direla uste al duzue? Zergatik?
- Zeri erreparatu beharko genioke zerbait erostean? Horren garrantzitsua al da marka batekoak edo bestekoak izatea?

Zer edo zer erostean modu arduratsuan egin behar dugu eta ondo aukeratuz. Kontsumitzaile legez dugun erantzukizuna kalitate oneko produktuak prezio justu batean eskatzea da. Horrez gain, erosten ditugun gauzak nola egin diren ere jakin beharko genuke. Modan dauden marka askok, Nike, Levi's, Adidas, Disney, besteak beste, Hirugarren Munduko pertsonak egindakoak izaten dira (sarritan neska-mutikoak), oso baldintza txarretan eta egiten duten lanak merezi duen baino diru askoz gutxiagoren truke lan egiten duten pertsonak.

Gehienok modak eramaten gaitu, markek. Baina... nork jartzen du moda? Geuk izan behar dugu gauza batzuk modan jartzen dugunok, onak diren gauzak, pertsona guztien eskubideak errespetatzen dituztenak eta ingurumena zaintzen duten gauzak. Alda dezagun moda!

Sor dezagun orain geure arropa eta oinetakoen marka, eta eman dezagun ezagutzera iragarki baten bidez. Aukera ezazue markaren izena, asma ezazue slogan bat, irudi bat...



Arte hezkuntza



MUNDUKO
HIRITARROK



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

Helburuak

- Ikusmen-motore koordinaketa garatzea konposaketa plastikoak egitean.
- Materiala ezberdinak erabili eta dituzten adierazpen aukerak ezagutzea.
- Ekoizpen artistikoak lankidetzan egitea.
- Ahotsa era egokian erabiltzea adierazpen tresna gisa erritmo, intentsitate, iraupena eta intonazioa bezalako alderdietara egokituz.
- Perkusio txikiko tresnak era egokian maneiatzea abesti eta doinu akonpainamendu xumeak erabiltzeko.
- Irudimena eta sormena plastika, musika eta antzezpen adierazpenean garatzea.
- Kultura eta arte adierazpen ezberdinak ezagutzea herri ezberdinetako musika tresnen bidez.
- Aniztasunaren aberastasuna eta bestelako kultura eta adierazpen erak errespetatzeko dugun beharra antzematea.
- Bizipenen bidez, errekursoetarako diren aukera ezberdinak ulertzea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Musika sortzen dugu” – Plastika arloa – Ziklo guztiak

Deskripzioa: Ikasleek herri ezberdinetan diren musika tresna tipikoak egingo dituzte. Material sinpleak eta irakaslearen oharrak segituz, Brasileko sonailuak egingo dituzte, kaskabilo indiarak, eta abar.

Materiak: Musika tresnak egiteko behar direnak (fitxa 1.1.ean azaltzen dira).

Dinamika: Banaka.

Iraupena: Egin nahi diren musika tresnen arabera saio bat edo gehiago beharko dira.

Iradokizunak: Musika tresnak egiteko material birziklagarriak erabil daitezke eta gaia taldeka landu. Jarduerak balio dezake bide batez, musika tresnen jatorri diren herriak non dauden mapan kokatzeko, bertako klima ezagutzeko, hizkuntza, ohiturak, jokoak, bertan bizi diren pertsonak, etab.

Komenigarria da fitxa 1.1.ean proposaturiko hausnarketarako galderak lanean ari den hezkuntza mailara egokitzea.

Jarduera hau 2 zenbakidunarekin osatzen da: "Munduko soinuak".

2 Jarduera:

“Munduko soinuak” – Musika arloa – Ziklo guztiak

Deskripzioa: Munduko orkestra bat eratzea proposatzen da. Ikasleak 1. Jardueran eginiko musika tresnak aztertzen eta euren abesti propioak asmatzen has daitezke. Ostean, behin haiekin ohituta, elkar daitezke denok batera kantaren bat jotzeko. Egingo diren musika tresna gehienak perkusiozkoak izango direnez, jarduerak erritmoaren zentzua eta ahozko zein musika tresnen adierazpena lantzeko aukera ematen du.

Materiala: Ikasleek eginiko musika tresnak.

Dinamika: Taldeka.

Iraupena: 60 minutu. Musika antzezpen bat egiteko entseatu nahi izanez gero, saio gehiago beharko dira.

3 Jarduera:

“El que parte y reparte...” – Plastika arloa – 2. eta 3. zikloak

Deskripzioa: Taldea hirutan banatzen da:

- 1. Batean jende asko egongo da eta ia zutik egoteko aukera emango ez dien toki batera joango dira, horrez gain arkatza eta orrialde bana emango zaie.
- 2. Beste talde batean jende gutxi egongo da eta lan egiteko material ugari izango du (arkatzak, errotulkiak, margoak, borragomak, koloreetako orrialdeak, etab).
- 3. Hirugarren talde batean jende, leku eta material proportzioa egokia izango da.

Talde bakoitzak kofre edo kutxa bat egin beharko du plastika klasean erabili ohi den materiala gordetzeko. Jendetsua den taldeak ez du apenas lekuri izango ezta materialik ere agindutakoa egiteko. Horrela, beste taldeak ikusita, hausnarketa errekurtsio banaketa bidegabearen ingurukoa izango da. Dena den, jarduera honen garrantzia bidegabekeria bat pairatzeak dakarrena probatzea da, zerbait egiteko bitartekorik ez izateak dakarren inpotentzia eta errekurtsioak dituzten eta ez dituzten pertsonen aukerak egiaztatu.

Materiala: Arkatzak, errotulkiak, margoak, borragomak, koloreetako orrialdeak, etab.

Dinamika: Taldeka.

Iraupena: 60 minutu.

Iradokizunak: Jarduera osteko hausnarketa bidera dezaketan galdera batzuk:

- Bidezko al deritzozue taldeetan egin den material eta leku banaketa?
- Nola sentitu zarete kofrea egiteko apenas materialik izan ez duzuenak?
- Eta materialak zenituztenak, zer pentsatzen zenuten materialik ez zutenak ikustean?
- Munduan antzeko egoerak ematen direla uste al duzue? Eta zuen etxeetan, ikasgelan edo auzoan?
- Teorian pertsona guztiok ditugu eskubide berberak; betetzen al da praktikan?
- Bidegabekeria horiek ekiditea gure ardura al da?
- Zer egin ahal eta behar dugu egoera horiek konpontzeko?

Fitxa 1.1.

Ikus dezagun zer-nolako musika tresnak dituzten beste herri batzuetan. Tresna horiek egitea oso erraza eta dibertigarria da. Gainera gero, jotzen ikas dezakegu.

Kaxoi afroperuarra

Etxeke kaxoi simple bat tresna zoragarria da. Gainean jesartze-ko moduko tamainako tiradera izatea garrantzitsua da; alde hutsa gure atzeko aldean geratuko da eta tiraderaren hondoa justu gure eskuen parean.

Soinuak eskuek eraginda sortuko dira. Soinuak ezberdinak izango dira tiraderaren zein aldetan jotzen dugun kontuan izanik.



Marakak

Heria: Marfileko Kosta

Egin daiteke hazi edo indabez betetako kutxa batekin, baita arrozaz betetako freskagarri latekin ere.



Sonailuak

Heria: Brasil – Amazoniako oihana


Objektu ezberdinetan zuloak eginenez gauza daitezke (intxaur oskol hutsak, plastiko edo egur zatia, ...). Ondoren, zuloetatik hariak pasatu eta egurrezko edo metalezko aro batera lotzen ditugu.

Harien luzera ezberdina izan daiteke. Almeja oskolekin soinu oso polita da.

Guiro afrikarra – peruano

Heria: Perú

Kanabera zati bati edo egurrezko hodi bati gainean egurrezko makilatxo batekin igurztean soinu eragingo duten koska batzuk egingo zaizkio.



Andeetako Antarak

Heria: Bolivia

4 edo 5 kanabera txiki hartu eta bata besteari lotzen zaizkio. Ostean, eskailera eran moztuko dira. Igurztean kanabera bakoitzak soinu ezberdina sortuko du.

Khatac txintxarri dantza

Heria: India

Oina bakoitzaren inguruan soka txiki bat lotuko dugu, non soka honek bi makilatxo izango ditu lotuta. Hankak mugitzean soinuak sortuko da.



Afrikar gortina

Heria: Madagaskar

Egurrezko pertxa batetik metalezko giltza ugari jarri behar dira batera zintzilik. Musika egin daiteke metalezko barrak arin edo astiro pasatuz.

Pentsatzeko galdera batzuk...

- Inoiz entzun ala ikusi al zenuen musika tresna horietakoren bat? Besteren bat ezagutzen duzue?
- Musika tresna ezberdinak daude anitz kultura desberdin ere badelako. Zuenaz gain, zein beste kultura ezagutzen duzue?
- Zer deritzozu kultura aniztasunari?
- Zer lortzen dugu edo zer ekarpen egiten digute kultura horiek?
- Nola jokatu behar dugu gurea ez den beste kultura ezberdinen aurrean?

Inguruaren ezaguera



MUNDUKO
HIRITARROK



Alboan

FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDAZIOA

Helburuak

- Birziklatzea eta zarama banatzearen garrantzia eta zentzua ulertzea.
- Ohitura automatizatuak onartu eta kontziente egitea portaera konstruktiboago bilakatzeko.
- Norberak duen erantzukizunaz jabetzea ingurugiro osasuntsu batez gozatu ahal izateko.
- Inguru naturala babestu eta dituen baliabideak sustatzea giza garapenerako testuinguru gisa.
- Naturarekiko errespetu jarrerak eta ekologiarekiko gustua garatzea.

Jarduerak

1 Jarduera: “Birzikla dezagun” – Ziklo guztiak

Deskribapena: Jarduera honek bi aukera ezberdin ditu lana burutzen den zikloen arabera:

- *1. eta 2. zikloak:* Era erraz batean birziklatzea zertan datzan azaltzen da, duen garrantzia eta zer birzikla dezakegun (kartoia, papera, kristala, ontziak, eta abar, ikus informazio osagarria). Halaber, erabili beharreko edukiontzia zein den azaldu beharra dago koloreak materiekin erlazionatuz (papera edukiontzi urdiner), eta klasean egiteko proposamena egingo da gero ohiko erabilera egiteko.

Amaitzeko, ikasle bakoitzari produktu eta materia ezberdinak agertzen diren fitxa bat eman-
go zaio. Txandaka, umeez fitxan ageri diren irudiak dagokien edukiontzira “botako” dituzte.

- *3. zikloa:* Ikasle bakoitzak bere familian sortzen den zarama “aztertze”, birziklatzen denentz zehaz-
teko, eta abar proposatzen da. Biharamunean, klaseak birziklatzea euren eguneroko bizi-
tzan egiteko proposamena egingo da. Horretarako, gure herrian ditugun antzeko edu-
kiontziak egin daitezke kartoizko kutxekin.

***Kasu bietan ezinbestekoa da ikasleek ulertzea ingurugiro osasuntsu bat izateko esku-
bidea eta berori babestu eta errespetatzeko dugun beharraren artean den lotura.***

Materiala: 1.1. eta 1.2. fitxak, kartoizko kutxak eta margoak.

Dinamika: Indibiduala eta talde mailakoa.

Iraupena Zikloen arabera.

- 1. eta 2. zikloak: 30 minututako hiru saio.
- 3. zikloa: 60 minutudun saio bi.

Iradokizunak: 1. eta 2. zikloetan garrantzitsua da bakoitzak bere txanda errespetatzea objektuak edo mate-
riak botatzera irtetean arretaz behatuz gainontzeko ikaskideen portaera.

3. zikloan jarduera burutu daiteke abiapuntutzat ikasleek ikastetxeko patioan den jende-
aren portaera behatuz. Kasu horretan, komenigarria da aurretiaz taldeka honako alderdi
hauek jasoko dituen behaketarako orri bat egin eta adostea: zenbat paper, bilduki, eta
abar botatzen diren lurrera, komunak nola zaintzen diren, nortzuk diren garbiketaz ardu-
ratuta dauden pertsonak, eta abar. Horrela, norberaren behaketa eta datu bilketa erraztu
eta hobetu egiten da.



2 Jarduera:

“Zain ezazu zeure orria” – Ziklo guztiak

Deskribapena: Ikasleak lau taldetan banatzen dira lau ilara egingo dituzte, bata bestearen atzean. Taldeak bata bestearen aurrean kokatuko da. Zeinu bat eginda, talde bakoitzaren aurrean den pertsonak zuhaitz baten hostoa pasatuko dio bere buru gainetik atzean duenari, eta bigarren horrek hanka artean hurrengoari eta horrela ondoz ondo goitik eta behetik. Ilarako azken pertsonak korrika joango da ilararen hasierara eta berriro pasatuko dio atzean duenari, hasieran lehenengokoa zenari. Ekintza behin eta berriro egingo da hasieran hostoa pasatzen hasi dena amaieran egon arte. Hostoa apurtzen bada, taldeak galdu egingo du. Irabaziko dute hostoa zaintzea lortu duten taldeek.

Materiala: Zuhaitzetako hostoak.

Dinamika: Taldeka.

Iraupena 20 minutu.

Iradokizunak: Txango batean egiteko joko aproposa. Gomendagarria da ikasleak ohartaraztea oraindik zuhaitzetan hazten dauden hosto biziak ez hartzeko. Edozelan ere, jokoa edozein lekutan egin daiteke, kanpoan zeinaterpean.

Bukaeran, honako galdera hauen inguruko hausnarketa egin daiteke:

- ☞ Uste al duzue natura babestea garrantzitsua dela?
- ☞ Zer gertatzen da egin ezean?
- ☞ Guztiok dugu ingurumen osasuntsua izateko eskubidea eta gure ingurumen hori babestu eta errespetatu beharra. Zer egin dezakegu babesteko?

Ingurugiro zaintzea guztion ardura da!

Irakasleentzako birziklatzeari buruzko dokumentazio osagarria

<http://www.serviplus.com/m.ambiente/docu/esp/reco.htm>

Gure hondakinen batez besteko osaketa kontuan hartuz, esan daiteke urtean *480.000 tona metal, ia milioi bat tona, 2 milioi eta erdi tona inguru paper eta kartoi eta ia 6 milioi tona materia organiko* bota ohi dugula zaramara, material horien guztien ekoizpenaren %40 eta 75 artean dauden kopuruak.

Errekurtso horiek galdu egingo ditugu eta horrez gain, eta berreskuratze industria erabiltzen ez denez, lehen-gaia eta energiaren erabilera etengabe areagotuz doa eta horrek nazio mailako ekonomian eragin handia du.





Papera


Paperaren bilketa selektiboa sustatzeak merkatal defizita betetzen lagundu ez ezik, bestelako etekinen ekarpena ere suposatuko luke, honako hauek hain zuzen ere:

Baso errekurtsuen zaintzea: Azken 19 urteotan erabili eta berreskuratutako ia 21 milioi paper eta kartoi tonen milioi erdi mendi hektarea beteko luketen 300 bat milioi zuhaitz moztea ekidin dute.

Energia aurreztea: Berreskuragarriak diren zuntz zelulosakoetatik lortutako papera eta kartoa egiteko prozesuak %70eko *energia aurreztea* dakar, 390.000 t petrolio urtean.

Zarama kopurua gutxitzeagatik aurreztea: Udaletxeek urtero zaraman poltsetan izaten den *bi milioi inguru paper eta kartoi tona* bildu eta eliminatu ohi dute.

Jendeak aurretiaz banaketa egiten badu, lehengai hori paper-enpresek aprobetxatuko lukete Udaletxeek bitartean, zarama gutxiago jaso behar izango luketenez, zerbitzu horren kosteak murriztuko lituzkete, egun 30 eta 36 euro/t gutxi gorabehera.




Beira

Etxeko beira birziklatzeak zenbait onura dakarkio Herriari. Honako hauetatik sortutakoak dira:

Lehengairik ez erauztea, birziklatzen den erabilitako beirazko ontzi tona bakoitzeko 1,2 tona lehengai aurrezten da eta.


Energia gutxiago kontsumitzea. Erabilitako beirazko ontzi tona bakoitzak 130 kg fuel aurrezten duela kalkulaten da.

Hondakin bolumena murriztea, Udaletxeek jaso eta eliminatu behar dutena. Zarama tona bat jaso eta eliminatzearen kostea batez beste neurgarria 30 eta 36 euro dela esan daiteke.



Pilak

1990ko ekainean, EBeko Ingurumen Ministro Kontseiluak zuzentarau bat onetsi zuen, bertan duten pisua baino %0,025 merkurio edo kadmio gehiagoko pila eta metagailuak hiru jarduera nagusiren pean jarri beharko dira: artikuluen **bilketa selektiboa, birziklatzea eta duten metal pisutsuen kantitatea murriztea.**



Konpostagintza

Konpostagintza kontrolatutako *hiri hondakin*etako *solidoetan* dagoen lehengaiaren deskonposaketa biologikorako prozesu bat da.








Zatiketa organikoa nekazaritzan erabiltzeko berreskuratzen da, eta horrek naturatik hartutako sustantziak berriro naturara itzultzea dakar.

Prozesutik lortutako materia, konpost deritzona, ez da ongarri osoa elikagai eta oligoelementuak dituen arren, gehiago da lurra birsortzeko gai bat, horregatik hain zuzen eman zaio “**ongarri organiko**” izena.



Fitxa 1.1.

Mozteko



Fitxa 1.2.

Jadanik badakigu birziklatzea zer den baita non eta zer birzikla dezakegun ere: egunkariak, botilak, kartoia, edukiontzia, latak, bateriak, eta abar.

Detektibe bihurtuko gara ikerketa bat burutzeko.

Azterketa bat egin, etxean zaramara birziklagarri diren zein gauza botatzen dugun jakin dezakegu, alegia, zenbait egunetan zehar zakarrontzia begiratzuz bertan zer den ikusteko.

Bete dezagun taula, adibidean bezala, gure datu guztiak jasotzeko.

Artikulua	Zerezkoa da?	Birzikla daiteke		Zein edukiontziri dagokio?					
		Bai	Ez	Beira	Papera	Plástico	Pilak	Zarama organikoa	
Botila	kristala								

Taldetan komentatzeko...

Bizitzeko ingurumen osasuntsua behar dugu eta horretarako ezinbestekoa da zaintzea. Guztiok gara horren erantzule. Zelan jokatu behar dugu eta zer egin behar dugu zaintzeko?

Gure planeta zaintzeko modu bat birziklatzea da, egingo dugu?

- Etxean, ba al dugu zarama ezberdina banatzeko ontzirik?
- Botatzen dugunetik zenbat da birziklagarria?
- Zer egin genezake etxean zarama gehiago birziklatzeko? Eta ikastetxean?

Guztiok dugu ingurumen osasuntsu batez gozatzeko eskubidea, lagun dezagun!

